gogotik aitortzen det. Jesusen / Apaiz-Biltzarreko Larramendi berria, (11) / Aita Aranak, nere lanchoak ontasunez / begiratuak izan dirala, chit / atsegin det. Emendik amabost egunera, (12) / Berorri; nere ustez, gustatu bearko litzazkiokela (13) / liburu batzuek Bayonara bialduko / diozkat. Oyen eskeñian ikusibeza, / otoi, Berorren ganako gogo on / daukana / Bere zerbitzari / ta adiskidea / L L Bonaparte [zirriborrua] (14).

N. ALZOLA

(11) Tinta-gorriz oar bat: "+berri".
(12) Tinta gorriz, beste oar bat: "ean".
(13) Tinta gorriz, beste gañerako oar bat: "+ko".
(14) Eskutitz au tinta moraduz egiña da, eta 0'28 x 0'30 ditu neurriz.

EUSKALTZAINDIAN SARTZERAKOAN ORMAETXEA JAUNAK EGINDAKO ITZALDIA ETA MITXELENA JAUNAREN ERANTZUNA

Leitza'ko Mintza-Doiñua

Jaun Andereak:

Akademi ontan nere sarrerako itzaldia egitera Naparroa'ra zergatik etorri naizan, esaten asi-bearrik ez daukat batere. Naparroa'tik aukeratu ninduten lenbizi laguntzaille, ta oraiñ alkidun, eta bidezko da nere bigarren erri ontara etorri nadin.

Esan-bearra daukat, ordea, Leitza'ra zergatik etorri naizan. Aspaldiko urteotan euskeraren mintza-doiñua esamiñatzen ari naiz, eta nik belarriz obekienik artzen dudana, Leitza'koa da.

Uitzi auzo-erri ortan azia ta ikasia naiz, eta, iakiña, orko mintza-doiñua maite dut iñongoa aiña. Ez da Leitza'koa baiño batere itsusiagoa. Ala ere, aspaldietan emengo seme argi zen Aita Gabriel Huarte Txortxiko'nekoari esan niona, Leitza'ko mintzoa iduri zaida entzun dudan iatorrena, edo beintzat, beretasunik aundiena duna. Izanez ere, Leitza'n entzuten ditut garbienik, musikan doiñu-bitarte edo *intervalo* esaten zaien oriek, eta gaiñera, esanaren azken-silaba beteago emaiten dutela Leitza'n nago, Euskalerrian bestetan baiño.

Auzo-errietan gertatzen dana, elkarri maxi egiten genion Leitzar eta Uitziarrak batzuk besteen doiñuarengatik. Gaur ez bedi olakorik. Iakintasunari dagokion eran, iakingaiak txuxen artzeko dira, ta aietaz bear bezalako iritzia emaiteko.

Oraindio bizirik irauten du bere beretasun ederrean gure euskeraren doiñuak; eta beste alderdi askotatik begirata arrigarria baldin ba'da gure izkuntza, doiñuarengatik arrigarriago esan diteke. Nik aitortu dudan egi au garbitan ipintzeko, gure egunotan gertatu dan zerbait begien aurrera ekartzea naikoa dugu. Or ari izan dira prantsesak eta alemanak, Eliz-kanta gergorianoari beren itzak nola egokituko ditioten. Egiñalak egin ondoren, txuri eginda gelditu dira. Guk, berriz, iñolako alegiñik egin gabe, egiñik arkitzen dugu gure izkuntzan aiek berenean eziñ egiñ izan dutena.

Gipuzkoa'ko Matximenta'n ioan den illabeteetan Bezperak euskeraz kantatzen asiak dira. Txoragarri gertatzen omen da. Gure azentua eskurakoi da erabiltzeko, baiña beste ainbeste zail esamiñatzeko, igeskorra baita inguruko izkuntzena ez-bezala. Gure onek, griego zârak bezala, ez du indarrezko azentu nabarmenik; gora-bêrako mintzor leguna du, ta ortatik eldu da (dator) kantarekin oztopo itsusirik ez egitea.

Iru azentu-mota bereiziko ditut: silaba bakarrean daudenak, bitan dagokala daudenak, eta irutan dagokala daudenak. Silaba bakarrean dagon azentua griegoen *oxytonos* eta *barytonos* da. au da, gora-mintzorra ta bêra-mintzorra.

0 1 0 0 3 2 3 3 0 5
Ni naiz; ez naiz ni; ni ez naizala ni?

Or ikus era berean, azentua aldakorra dala itzean, esaeran non egokitzen zaion. Or ikus iru azentu (0, 3, 5), bat ezerakoa edo ez-azentua *(negativo),* ta bi baierakoak *(positivos).* Adibideak ekarri litezke ugari.

Bi silabako itzetan biak dira bai-azentua dutenak:

2 5 2 5
gizon, etxe.

Egoiten naiz batzutan, asierako azentu ori, orain bakarki dana, beste azentu puskaki edo elkarki batetik eldu ote dan, ^ ikolduta edo sinkopatuta. Latiñak ere ba-zun asierako azentu ori.

Bein itzaldi batzuk egin nitun euskera ta gaztelania nâste, ta entzule ikasi batek oartarazi nindun, euskerara pasatzean doiñua altxatu egiten nula.

AZENTU ELKARRI ERAUNTSIAK EDO ELKARKIAK

Ikusi ditugun bi azentu elkarki oriek elkarri erauntsita, griegoek ba-zuten *perispómenos,* nik bizkardun esaten diodana. Onen aldez-bestekoa ere ba'zuketen, klasikuak aipatzen ez ba dute ere.

Guk ba-dugu, beintzat. Orain berriroago arkitu duten Gramatiku batek beste izen batzuk emaiten ditu, eta aien artean *keklasméne*, puskatua. Iñork ez du eman, nik dakidala, orien arrazoirik oraiñarte, ta Vendryes'ek *ce sont de subtilités* esaten du, au da, buruzorrozkeri dirala. Ari mutur bat artzen dugula, ez ote diteke esan, puskatu orrek, belaunen arrimoan puskatzen dan makillak bezala magal egiten dula, ta *perispómeno*'ren aldez bestekoa dala? Eta *antallaxoméne* esaten diona ez ote diteke *perispómeno* kontu ortaz, eta *epitetaméne* esaten diona bi azentu elkarren gainka ipiñiak? (''). Zazpi azentu aipatzen ditu Gramatiku orrek, *neté* edo azenturik garaienarekin; dirudinez, bi azentu bakarki ta lau elkarki. Seigarrenaren izena ez dut gogora orain, Fraintzian liburu batean ikusia. Liburu ori ez naiz ausartzen eskatzea, an oi duten bezala, *Nouvelle édition* izenarekin ezin-salduzko zârren bat bialduko ba'lidate ere. Bein baiño geiagotan gertatua.

Ortaz, sei azentu oriek, euskerak ditunak ba'litezke:

(1) (´) } Bi azentu otatik ateratzen dira gaiñerakoak.
(2) (`) }

(3) (^) bizkarduna, *antallaxoméne?* bera

(4) (ᵛ) magalduna, *keklasméne?* bera

(5) (´´) elkarren gainkakoa, *epitetaméne?, scandicus.* bera (zatoz)

(6) (``) bi gainbera, ???. *climacus.* bera (ez etorri)

(7) iru, bizkar egiñez, *tereulvs.* etórri (gip. goi.)

(8) iru, magal egiñez. porrectus. etòrri.

Bi bakarki, ta lau biko elkarki orietaz gaiñera, esaerako azentu garaiena diona, ez da azentu bereizia. Itzak diona, garaiena edo altuena. Sei azentu oriek buru-zorrozkeri ez dirala ikusteko, betor Vendryes iauna, ta Lekunberritik Goizueta'ra bitartean arkituko ditu ugari. Griego zârrenaren azentuarekiko istudioak ez ote lezakete aurrerapenik egin euskerarenari begira?

Dena dela, azentu elkarki ok, iru elkartuak, neurri-oiñ artu ditezke griegoz eta latiñez bezala *(pies métricos)*. Orrela bakarra artu diteke bertso-mota bat euskaldun iatorra dena. Gaur erabiltzen ditugunak erdera dira ta ez dute balio kantatzeko bestetako.

IRU SILABAKO ITZAK. Azentuak oso aldakorrak ditu euskerak. Lenbizi erri batzuen izenak artu detzagun:

Ez-ku-rra (nexkak).

Iru errietan berdin ematen dute izendatzeko maillean edo nominativoan; baiña gaiñerako izen-ioku edo deklinazioan bixiko edo diferente.

Ez-ku-rrá-rà (Leitz). Ez-ku-rrá-rá (Berast. Uitz.)
Ezkurrárràrena (Leitz). Ezkurrárrárena (Berast. Uitz.)
Be-rú-tà (Leitz). Be-rú-tá (Berast. Uitz.)
Berútàrrarena (Leitz). Berútárrarena (Berast. Uitz.)

Berastegi'k eta Uitzi'k elkar artzen dute doiñuan, itzetan ez ba'da ere; baiña Leitza bakar gelditzen da bere, barruti itxi itxian, ikusiko dugunez. Zertan dago diferentzi ori? —Lau gauzetan. Lenbiziko, Leitzan garbiago entzuten ditut doiñu-bitarte edo *intervalo*'ak Euskalerrian iñon baiño; bigarrenik, Leitzarrak silaba batez lenago asten dira gainbera azentuan, eta silaba batez nekezago gaingora; irugarrenik, esaeraren azken-silaba beteago egiten dute Leitzarrak; laugarrena, Leitzan ez da entzuten batere bosgarren azentua edo bi gaingora dituna. Eta zer alde dago Uitzitik eta Berastegitik Gipuzkoa'ra? —Ainbesteraiñokorik ez. Gure bi erri otan doiñu-bitartea nabariago da, eta guk asieran beiñere ez dugu emaiten zazpigarren azentua edo iruko erdian bizkarra duna; Gipuzkoa'ko Goierrin, beti. Guk bosgarrena asko, naiz seigarrena, naiz zortzigarrena.

Iru silaba dagokala azentua duten itzak artuko ditut oiñarri bertsorako, izanez ere euskerak iru silabako itz asko ta asko baititu: eraman, ekarri, etorri, ikusi... eta bi silaba izanik ere, artikuluarekin iru artzen ditu: gizona, etxea, andrea, neskatxa, mutilla. Esan baititeke iru silabako au gertatzen dala geienik euskeran. Gauzak dakarrena da, bada, bertsoan oiñarritako au artzea. Azkenean bi itz ontaz.

Oin bizkarduna, Goierrin asieran eta Leitzan erdian ainbeste entzuten dana, euskera iatorra ote da? Ez ote du erdal-kutsurik? —Orrela bezala esan diteke, Altube iaunari buru emaiten ba'diogu. Iaun onek esamiñatu du oraiñarte zearoenik azentu euskalduna, eta au dio: eskerrikásko, aurréra, biarrárte, ta olako esaerak erdera dirala. *(Acento Vasco,* 45-48). Asko mintzatzen diranera, bai, kutsu ori ba-du; baiña berez, eta Leitzan bezela mintzatu ezkero, ez; au da, azken-silaba beteago egiten ba'da, beste oiñak bezain euskalduna da. Ezkurrá*ra,* aurré*ra,* eskerrikás*ko.*

Oin bizkarduna, magalduna bezain euskerarena da, ta bi gaingora ta bi gainbera bezain euskalduna. *Alá da,* Naparroa

Barrénean esaten dana, ta *alada (hormiga),* oso bixiko dira. Bizkaieraz *álán da,* beste nonbait *alá dá,* berdin dira euskaldun silaba bakoitzari bere pisua emaiten ba'zaio, ta batez ere azken-silaba be'eago egiten ba'da. Eta zergatik ez esan oin magaldunari prantses-kutsua dariola, ango itzen kerantza artzen dulako?

Iru silabako itzak, bakarka arturik, azentu magalduna dutela esan diteke geienak; baiña asko dira gaingora dutenak ere. Noiz ta nola. Larraungo amazazpi errietatik amaikak iru silabako izenak ditute: amaika orietatik bederatzik azentu magalduna dute, zortzigarrena, beste biek gaingora: *Albísú, Lezétá.* Berastegin eta Uitzin *Albísúara,* baiña Leitzan *Albísùara* esaten da.

LAU SILABAKO ITZAK. Otan ere batzuek gora besteak bera dabiltza: *Lekunbèrri,* azkeneko silabarekin magal egiten duna; *Berastégi,* azkeneko biekin gaingora egiten duna, magal egiñ ondoren; Orregatik esan oi dugu *Lekunberrìarrá, Berastégiarrá.*

Bost silabatara ezkero, bêra ta gora asten gera gu, esaera luzean bezala, lege iakinik gabe.

ITZ ELKARKIAK

Oraiñarte itz bakarki edo puskarik erauntsi gabeak aztertu ditugu; goazen orain itz erauntsietara. Bedi *mutùr-lùze.* Erdiko bi silabak magal egiten dute; ez ordea, gure bi erri otan, antz antzeko itz on'an: *mokó-lúze.* Erdiko bietan gaingora; baiña nere iaioterrian eta Goierrin erdiko bietan magal, beste itz orretan bezalaxe. Zergatik gu bakantzen gara besteetatik? —Ioan eta billa.

Itz erauntsi oriek bina silaba ditute. Goazen iruna ditutenetara: belarrì-àundia, diote nere errian, belarrí-áundia Uitzin eta Berastegin; belarrí-àundia Leitzan, nexkato au bestera ez ba'dago. Zergatik ola? —Ioan eta billa.

MINTZOA ADITZAN EDO BERBOAN

Mintza-doiñuaz Gramatikak egin dezazken galdera guziak egiñen ba'nitu, nekagarri litzaizuke, ta iakintasunarentzat ez luke neke aiña probetxu. Gaiñera, errietan aldatzen da azentua denboraren buruan. Berreun urte pasatxoak dira, besterik ez, Aita Larramendi'k bere *El imposible vencido* argitara eman zula. Andik onara ez da Aindoain'en azentu bera, batez ere aditzan.

Larramendi'ren egunetan onela esaten zan: *eráman, eróri, arázi, erázo, játen, egíteko, játeko, játearekin, ibílteagatik. (Acento del infitivo en sus varios modos,* l. c.).

Dáramatzit, dáramatzizute, náramak, náramazu, néngoan, nénbilan, déritzat, nágo, dézaket, dézakegu. (Acento de los verbos irregulares y determinables).

Beti ere gogoan idukitzeko da, ioku-itz ok azentua aldatzen dutela beste itzekin elkartzean: baiean, ezean, galderan, erorkeran. Au etzun auteman Larramendik.

ESAERAK. Artu dezagun bat eredu bezala:

Berdabíoren zaldiak // lau ankák ditu zuriak. (Leitz.)
Berdabióren zaldiak // lau ankak dítu zuriak. (Berast. Uitz.)

Nexkatoak pixkaren bat ikaratu egiten dira, ta nik, Leitzan nere erakustunik oberenak izan ziran edo izketa geienik gogora dudan Juana Joxepa Arribillaga'rena ta Don Iñazio Lizarragarena dira.

Eman dezagun aldez-beste edo galdekizuna tokiz aldatuta, bertso ori:

Lau ankak ditu zuriak // Berdabioren zaldiak.

Beti ere galdekizunak dakar beregana azenturik garaiena. Orregatik, aurretik iartzen danean, gaiñerakoaren mintzoa moteldu egiten du, komarik edo geldiunerik egiten ez ba'da:

Lau ankak ditu zuriak // Berdabioren zaldiak.

Baiña geldigune edo koma egin ba'ledi, azentua berriro asten dugu baierakoa edo bai-azentua:

3 2 3
Lau ankak ditu zuriak, Berdabioren zaldiak.

"Iru alaba ditu gure auzoko Joxepiñaxik". "Gure auzoko Joxepiñaxik, iru alaba ditu". Lenengo iokuan (komarik gabe) beratzi silaba erorkeran daude, beraz motel gelditzen dira; bigarrenean, bai-azentuak ditu, ta biziago gelditzen da.

Gauza oni ez diogu buru emaiten idazten ari geranean, eta bear genuke. Berez itz-urrena edo syntaxi iatorrago ta garbigoa da lenbizitik galdekizuna ipintzen duna, komarik ere ez baitu bear argitasunerako. Latiñez ere gauza bera gertatzen zan. Urrengo itz auetan aurren-urrenik iatorrena au da, Kikeron'ek emana:

Saltatorem appellat L. Murenam Cato.

Baiña mintzoari dagokionez, beste bi ioku ok obeak:

L. Murenam Cato saltatorem appellat.
Cato L. Murenam saltatorem appellat.

Zergatik ori? —Esaerako azentua edo galdekizunak berekin deramana baitu. Azentu au galdu omen zuten griegoak, eta nik uste, orregatik aien syntaxi galduago zala latiñarena baiño.

Ez dut iarraitu nai geiagoren protxurik gabe euskal-azentua esamiñatzen. Itz batzutan eta esaera batzutan, letrak bardiñak ditutenetan, bata besterengandik beraizteko ere balio du azentuak:

bi óntzàkó biòntzakò
bióntzákò, bi óntzako.

órí òrì òrì
órì órí, órí (toma eso amarillo).

Orain neskato ok, Ezkurrako ontzaren ipui laburra kontatuko digute:

———o———

Bi itz bertsoetaz. Bi makar ditute gure gaurko bertsoak: esateko, au da, mintzatzeko, erderara eramaiten gaitutela; ez, kantatzeko. Bigarrena, etenak geiegi edo urbilegi edo berdiñegi emaiten ditugula. Bi tatxa ok mintzoa doiñu zurrunera edo berdiñera daramate, *al tono recto*. Berdin dio irakurlea bikaiña ba da'ere.

Guk ez genuke irakurri bear oraiñarte euskeraz egin dan bertsorik ia batere, izketa arrunta edo prosa baiñon askoz ere musikaz urriago baitira.

Artu detzagun erderaz azentua bertanegi dituten bertsoak:

A las ármas, valiéntes astúres,
empuñádlas con nuévo vigór.

Bertso edo lerro batean edo bestean ez dut esaten, baiña nork aguantatu danborreri ori kopletan eta kopletan? Aragizko belarriak ez, nereak beintzat.

Ba-da gutartean gizon bat, aski ikasia, bost silaba oro etena dun bertsoa maiteen duna. Eta gaiñera erderaz bezela irakurtzen du:

Sáltza paré bat étxean bá-dut.
aítona zának émaná...

Azentu indartsurik ez emanda ere, au da euskerazko bertsorik pisuena, loargarriena, etena bertanegi dulako. Etena bertago ta okerrago. Sei silaba oro etena ongi dator. Ontara egin dira bertso batzuk gure egunotan. Adema Zaldubi'ren "Jesusen azkenafaria" tik asita. Ia ia prosa bezala irakurri diteke; baiña luzean luzean, doiñu berdiña gogorarazten du. Obe genuke beste oin batez edo biez nâsi. Lau silabakoa ta bostekoa sarrerazi ditezke mugimentu berean, sei silabakoa beti nabarixago dela. Ortara saiatu liteke:

la-la la-la — la-la-ra la-la — la-la-ra la-la-ra
la-la-ra la-la — la-la la-la — la-la-ra la-la-ra

eta orrela nâste.

Latiñez ere bertsoa eskaxago da, musikaz diot, prosa baiño. Azentu indartsurik ez zun arren, nork eraman belarriz geiegiko etenak?

Sole ca/dente iu/vencus a/ratra re/liquit in/agro.

Sei oin eta bost eten!

Iaun Andereak, aski bedi esana.

N. ORMAETXEA.

Jaun-andreak:

Bestelako aitzakirik eztuen egun eder onetan, Euskal-erri guztiak eta Nafarroa'k batipat "Orixe"-ri zor zion gorazarre onetan, bada orratik bere lekutik kanpora ageri den zerbait. Ormaetxea jaunaren sarrera-itzaldiari erantzuteko jeikitzean, arako aurrenak azken eta azkenak aurren izango diren aldi arzaz oroitu bear, nai ta ez. Orrexegatik, ozen eta argiro aitortu bearrean arkitzen naiz, eztuela gaur Euskaltzaindiak "Orixe" goratzen, "Orixe"-k goratzen duela Euskaltzaindia Euskaltzaindi'koen artean sartzearekin.

Asko zor diogu "Orixe"-ri eta Euskaltzaindiak iñork baiño geiago. Asko eta askotara. Or dugu nik beste guztien gainean jarriko nukean "Orixe" lirikoa, Lizardi'ren adiskide biotzekoa, mundu onetan suma ditekean egarririk ederrenak mintzarazi

duena. Or dugu bere aldiko euskaratzaillea. Or dugu gure erriaren izaera, mamiz eta azalez, barne-muinetaraiño bereganatu duen gizona, gure izkuntzaren aberastasuna gaiñezka darion iztun goxoa. Atzoko, gaurko eta betiko euskaldun onek jaso du, bestek ez adiña, euskararen eta euskaldunen izena eta omena. Ederrez igortzia dago bere kanta, gure mintzo nardatu onetan, provenzar andi ark bezala, eman duen kanta. "Edertasunak ukitu duen gauza —zion Keats'ek— beti da atsegin. Gero ta ederrago ageri da eta eztu iñoiz ezerezak irentsiko".

Oraindik, badakidan arren eztituela goresmenak gogoko, beste "Orixe" bat aipatu nai nuke emen: prosa-maisua. Onekin baikaude zorretan itz-neurtuetarako doairik eztugun idazleok, izen larri ori nere buruaren gaiñean ezartzeko baimena ematen badidate. Ormaetxea jaunari eskerrak batez ere, etzen eten gure artean eteteko zorian egon zen "gure asaben lokarri zaarra". Bere bitartez eldu zaizkugu askori, oartzen ez giñalarik sarritan, lau mendetako euskal-idazleen mintzaera dotorea ta ikasia, ta bertsolarien etorri ugaria ta lasaia. Antziñako aberastasun ugariak gordetzeaz gaiñera, aalegiñean saiatu da gure izkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen, izkera zailu, labur, biziago bat moldatzen. Eredutzat daukagu Orixe prosa-gaietan, baiña —eta au da iñork aaztu bear ez lukeana— nekez eta izerdiz bakarrik urbil gakizkiokean eredutzat.

Gaur, ordea, beste "Orixe" bat agertu zaigu emen, "Orixe" euskalaria. Ezta nolanaiko ausardia bear, alajaña, gaur, alde guztietarik aizeka ta aizeka ari diren ipar beltzak eta mendebal gorriak gure arteko euskalariak uxatuxe dituztenean, euskalari bezala agertzea.

Aukeratu duen gaia, Jainkoari eskerrak, erabillia dut zerbait aspaldidanik. Ez noa, jakiña, orain Leitza eta inguruetako mintza-doñuaz ikasi dugunari ezer eranstera. Ez naiz emen beste edozeiñen gisako ikasle umil eta ixil bat besterik. Anitz gauza ikasi izan dut sail onetan "Orixe"-ren gandik; gaurdaiño, ordea, liburuetan. Orain bere aotik ikastea gertatu zait zorionez.

Zillegi izan bekit, beraz, gai ez naizen ezkero bestetarako, erabateko zenbait gauza esatea azentuaz eta bereziki euskalazentuaz.

Auzi onetan, dakizutenez, eztatoz bat euskalaririk jakintsuenak. Eztabaidan ibilli direnak, gaiñera, jakintsuak ez ezik, belarri zorrotzeko jendeak dira eta izan dira: musikariak eta bertsolariak geienbat. Nondik nekarkioke, bada, nik argitasunik, nere ala-olako belarriarekin, gisa orretako gizonek zearo argitu eztuten auziari?

Makinaren baten bidez, esan lezake norbaitek, tresna-fonetikaz oroiturik, berea baitu azken-itza, gure artean askok uste dutenez, jakite-mota orrek. Ez, esku-utsik nator; obeto esan, belarri-utsik. Orrako magnetofon orrek ezpaitu jasoko giza-belarriak jaso eztuenik. Esandakoak entzun-araziko dizkigu bein ta berriro esan diren bezalatsu, baiña eztigu sumaraziko leen suma ezin genezakeanik.

Dakardan Berri Onak Fonologia deritza, bestetan —gutxi gora-beera— duen izena euskaldunok ere artu nai badugu. Ebanjelio au ezta agitz berria, egia esan, baiña eztu iñork oraindik, jakiñaren gaiñean, euskal-azentuaren auzia orren esanera ipiñi.

Laburki mintzatzeko, Fisikaren senidea edo illoba antzekoa da Fonetika. Izkuntzaren azal apaiña diren otsak beste edozein ots bezalaxe istudiatu eta neurtuko ditu. Mintzaerari bagagozkio, esango digu zein den ezpaiñen edo eztarriaren egoera eta mugimentua, mingaiñak ukitzen duen ao-sapaia ala ez, zein tokitan eta zer zabaleratan ukitzen duen, ortzek elkar jotzen duten ala ez. Otsari berari bagagozkio, neur ditzake zeazkiro bakoitzaren indarra, gora-beera eta iraupena.

Giza-izkuntza ezta, ordea, euri-zaparrada edo trumoiaren deadarra, ezta auntzaren gaberdiko eztula ere. Soñu oriek eztira axala besterik: barrenen daramate adierazi nai dugunaren mamia. Ortarakoxe dira bakarrik, eztute beste egitekorik. Eta Fonetikak eztaki deus mami orrezaz. Obeto esan, badaki; baiña jakite ori besterengandik ebatsia du ixil-gordean eta epaixka, lapurreta aitortu gabe.

Ezin konta ala dira gizonaren ao-eztarriek molda ditzaketen otsak. Alaz guztiz, banaka batzuez bakarrik baliatzen da izkuntza bakoitza: fonemak deritzate. Mintzatzerakoan, eztitugu beti berdin ebakitzen. Gaztelaniaz, *perro* eta *pecho* *e*-kin esaten ditugu ustez bata eta bestea. Laster jakinaraziko digu, ordea, fonetistak aurreneko *e* zabala dela eta bigarrena mearra. Are geiago, euskaraz *baba, dedu* itzetik ortzera diogunean naiz erdaraz *viva, dedo,* eztugu bitan *b* edo *d* berbera esaten. Ao-itxitura osoa da leenbiziko aldian, bi ezpaiñen edo mingain-muturraren bitartez; bigarrenean arkitzen du arnaseak, estua bada ere, zirritu bat.

Gure belarria, beraz, edo belarriaren atzetik adi dauden burumuiñak, bae baten antzeko agertzen zaizkigu. Baea sarea naiz tapitua izatea, ezta arritzeko. Besterik da arrigarri: bae orrek, dirudienez, zaia irazten duela sarritan eta iriña gelditzen; au da, Fisikari —eta Fonetikari, orrenbestez— zaia eta iriña irudituko litzaizkiokeanak. Erdaraz *viva* edo *bebo* esatean orobat zaizkigun

bi *b* oriek etziren orobat gaztelania zaarrean: *uevos* "arraultzak", gaur bezalatsu ebakia, eta *uebos* "bear" *(uebos me es* 'bear dut') ezpaitziren orobat nork bere esan-naia besteri aditzera emateko.

Mamiraiño eldu gera. Soñu batetik bestera dagoen aldea eta bitartea andia izan daiteke, Fisikaren iritziz, ala ttikia. Eztio axola. Beste zerbaitek du axola. Edozein izkuntza, berriro esan dezagun, ezta mintzabide bat besterik. Ezta beti izango, aur-liburuetan irakur litekean gisa, gogoan duguna aditzera emateko bidea, baiña bai orduantxe ere gogo-biotzetan dagoena estaltzeko eta itxuraldatzekoa, eta ezta ori bestea baiño eginkizun kaxkarragoa.

Batzuetan, bada, bi soñuren arteko aldea eta desberdintasuna, berez utsa badirudi ere, bereizgarria da izkuntza batean; besteetan, berriz, zein ere larria dirudien, ez. Noiz da bereizgarri? Bi esan-nai, bi adiera, bi zentzu soñu-bereizkuntza orrek, besterik gabe, bereiz ditzakeanean.

Ditezkean soñuen loi moldegabetik eskutada bat autatzen eta moldatzen du izkuntzak, fonemak alegia, zein bere ezaugarriekin, bereizgarri izan ditezen, ezin esan ala adiera bereziren bereizgarri. Autatze utsaz, izateko eskubidea eman die; gaiñerako guztiak, begiz jo eztituelako, ezerez gorrian utzi ditu. Biar edo etzi agian, baztertu zituenez baliatzen asi delako, izango dute auek ere sarrera gizartean.

Izkuntza —edozein izkuntza, gero— giza-mintzabidea den aldetik, gogoan iduki bear da au, izkuntza orrezaz balia ditekean edozein iztunen mintzabidea da, ikasiena naiz ez-ikasiena, belarri onekoena naiz txarrekoena. Guzientzat ari da, *Graecis ac Barbaris, sapientibus et insipientibus.* Bereizgarri diren bereizkuntzak, bada, izkuntza ongi dakiten guziok suma ditzaketen alakoak bearko dute izan, ez fonetista eta musikari gutxi batzuen jakite izkutua. Fonologia demokrazi-zaleak itzuli digu Fonetika andikiak ukatu zigun itza. Ez gera gauza izango bear bada bereizkuntza zertan datzan erabakitzeko; bai, ordea, gorraireak jo ezpagaitu, bereizkuntza eta aldea badagoela nabaritzeko.

Azentua, silaba batzuek besteen ondoan duten pisu astunagoa, ezta noski fonemen parean jartzekoa, fonemez gaiñekoa edo fonemen bidaidea baizik. Baiña izkuntza batzuetan esan-naiak bereiz ditzake. Ona zenbait erdal-itz azentuaren lekuak elkarrengandik bereizten dituenak: *amo/amó, cortes/cortés, dejo/dejó, peso/pesó.* Zertarako besterik? Orien gisako itz-pareak ugari dira gaztelanian, Nafarroa'n idi-pareak bezain ugari.

Emen dago iltzea. Fonetista trebe batek, Navarro Tomás jaunak, gauza asko eta asko erakutsi zigun zenbait gipuzkoar eta bizkaitarren azentuaz: bai arnas-indarrez, bai doñuz, bai iraupenez, eztela alde andirik silaba batetik bestera; iru silabako izenetan leenak eta azkenak dutela pisu geixeago; laukoetan, leenak edo bigarrenak eta azkenak; esaldi luzeetan, eta itz soilletan ere bai noizik bein, azentua erraz tokialdatzen dela, eta abar.

Egia da, noski, ori dena. Besterik jakin nai genduke, ordea. Euskeraz ere —eta gure artean geienbat entzuten den euskeraz ari naiz oraingoz, euskeraz ere azentuak, dena dela, bereiz aal ditzake beste alderik eztuten itz-pareak ala ez? Euskalarien artean batzuek, Azkue zenak esaterako, baietz diote; Altube jaunak, berriz, ezetz, banaka batzuetan izan ezik (1).

Itzaren barrutian begiratzen badiogu auzi oni —esaldia luzeago eta gertaerak naasiago baitira—, zalantza andirik gabe erabaki daiteke, Azkue jaunaren alde. Geiago edo gutxiago, onela edo ala, azentu soillak bereiz ditzake, Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n barrena, zenbait itz-pare.

Lekukorik aski arki genezake nekerik gabe. Ona bat. Arakistain'ek 1746'ean dionez, bazen orduko gipuzkeran onelako bat: "Saliva, *chistua,* con acento largo, g. *listua,* n. Silbo y también flauta, *chístua,* con acento breve, g." (2). Baiña badut naikoa adibide nere jaioterrian, urrutira gabe. Errenteria'ko izkeran, gauza bat da *arrantzá,* astoarena alegia, eta bestea *arrantzà,* itsaso-erreketako arraiena; bata *basuá* 'oiana' eta bestea *basuà* 'edontzia'; bata *iltziá,* iltzatzekoa, eta bestea *iltzià* 'eriotza'; bata *eltziá* 'lapikoa' eta bestea *eltzià* 'eustea'.

---

(1) "En las páginas 24, ... se ocupa la *Morfología* de la actuación propia de ciertos afijos y vocablos euskéricos; y se sostiene la teoría de que en algunos de ellos lo sílaba final es tónica y en otros *átona.* En mi estudio intitulado *El acento vasco...* se trato extensamente de esta materia, manteniendo la tesis contraria, o sea, que en euskera, fuera de casos especialísimos, las palabras de *igual número de sílabas* y colocadas en *la misma posición sintáctica,* se acentúan *idénticamente*" (Altube'tar Seber, *Observaciones al tratado de "Morfología Vasca" de D. R. M. de Azkue,* Bermeo, 1934, 186 ur.).

(2) Larramendi'ri bidali zion iztegitxoko 419-420'garrenak. Azentu "laburraz" eta "luzeaz" zer adierazi nai duen ikusteko, cfr.: "Macho y hembra en los cerdos, *ordoisa, hardia,* con el acento breve". Onako *ardi* (*a(h)ardi*) au etzen, alegia, beste azentu "luze"-dun *ardia* (belar-jalea, jakiña) bezala ebakitzen. Ikus gaiñera P. de Zamarripa, *Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco* (Bilbao, 1957), 80: "*Txistu.*—Saliva / *Txistu.* Silbo, silbido, / silbato".

Are geiago. Artikuluarekin iru silaba osatzen dituzten izenak bi sailletan banatuak ageri dira izkera orretan. Ona batekoak eta bestekoak: *makinà* baiña *elizá, kayolà* baiña *alabá, bestià* baiña *estiá, atzià* baiña *itxiá, tartià* baiña *artiá, lotiyà* baiña *loriyá, tokiyà* baiña *txoriyá, kabiyà* baiña *gariyá, periyà* baiña *berriyá, premiyà* baiña *pixtiyá, lupiyà* eta *mukiyà* baiña *txuriyá* eta *guriyá, leyuà* baiña *lepuá, mokuà* baiña *zokuá, jokuá; malkuà, ttanttuà* baiña *manduá, kolkuá; xatuà, xantuà* baiña *soñuá, doñuá; lekuà* baiña *trikuá, moduá; amuà, kaikuà, malluà* baiña *zakuá; txixtuà* baiña *ixtuá, pixtuá.* Ondorea: *lekuà, mokuà* eta orien gisakoek, bat ala geiago izan, eztute doñurik tokialdatzen. Berdin da alde orretarik *txistuàk esnatu dute* naiz *txistuàk esnatu du* (3).

Aipatu ditudan gertariok ezagunak dira (4); eztaude, ordea, oraindik bear adiña aztertuak. Azter-lan ori banan-banan egin bear litzake erri bakoitzean. Lekuona jaunagandik dakit, adibidez, Errenteria'n bezalatsu daudela gauzak Oriartzun'en naiz bereizkuntza ez berbera izan eta naiz beti itzak bi sailletan berdin banatuak ez egon.

Zein da banaketa orren arrazoia? Banaketa-legea arkitua balego, arrazoia ere agerian legoke, noski. Baiña legea arkituko baldin bada, itzak ongi bilduak eta sailkatuak iduki bearko ditugu (5). Zergatiko-eske asten bagera, eztugu segur aski gaurko izkuntzan atzemango. Aldi joanetara eramango gaitu billaketak, atzoko eta eranegungo izkuntzara.

Zein da eta zein izan da, izan ere, euskal-azentuaren izaera? Gaurko Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi eta Nafarroa'ko zenbait eskualdetakoaz kanpora ba ote dago euskal-azentu jatorrik? Orixe da noski gure arteko euskaldunik geienen ustea. Dena dela, eta

---

(3) Lau silabakoetan, *eróriyà, leámiyà* bezala, baiña *egósiyá, erósiyá.* Bi itz-saillen artean dagoen aldea onela mugatuko nuke, Azkue'ren arabera: leen saillekoak (*tartià, kabiyà, tokiyà, leyuà, lekuà*) gain-beera dijoaz leen silabatik aurrera, eta azkenekoak eztu indar berezirik; bigarrengoek, berriz, pisu berezia dute —arnas-indar geiago, ene ustez— azken silaban ere, leenbizikoan ez ezik.

(4) Ikus, esate baterako, Azkue'ren *Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos,* Bilbao, 1931. Xeetasunetan aatik ezta beti onestekoa. Ezta egia, bat aipatzeko, Erronkari'n eta Zuberoa'n *gaia* 'gaua' eta *gaia* 'gaia, geia', azkenekoa era onetan erabilliko balute ere, desberdiñak direnik. Leenbizikoa, 'gaua' alegia, *gáia* esaten baita batean eta bestean, ez *gaiá,* Azkue'k nai lukean legez.

(5) Bi gauza esan ditezke, orratik, aurrera gabe: 1) *lepuá*-sailla bestea baiño askozaz ere ugariagoa da, ori da oiturazko azentu-moldea; 2) erdaratikako itz sartu-berriak ugariago bide dira bestean, *leyuà*-saillean.

oni begiratzen zaio geienbat, azentu-mota ori ezta gaztelaniazkoaren antzekoa, ezta alderatzeko ere. Gaztelaniazkoaren eiterik ezpadu, beraz, nola ezta izango ori euskal-azentu jator bakarra?

Bai, gogo txarrean bederen, aitortuko dugu Zuberoa'koa txit bestelakoa dela. Xuberotarrek, ordea, izkuntz-mugan daudelako edo, kutsatu egin bide dira, eta eztugu aien bearneskeriez arduraric izan bear (6).

Baiña Zuberoa'n bakarrik ezagutzen ote dira orrelako erdalkeriak? Ez, aitortzen digu Azkue'k, Gipuzkoa'ko nafar-izkera duen bi erritan, Irun'en eta Ondarribia'n, baita Nafarroa'ko Bost Irietan ere, indar-azentua dabil gaillen (7). Orrelako zerbait ere bada Beintza-Labaien'en, neronek entzun dudanari banagokio. Ango *abisatu, abi-stu* da nere belarriendako. Azentudun silaba indar geiagorekin eta askozaz ere luzeago ebakitzen dute; urrengoa, berriz, ezta ia aditzen, ain baita laburra eta ixilla (8).

Aitu ote dugu aria? Ez, oraindik. Nafarroa'ko Ultzama'n ere, jakitunek diotenez, txakurrak oiñutsik dabiltza eta indar-azentua nabarmen (9). Are geiago, Erronkari'ko azentua erdal-azentuaren pare-parekoa da. Izaba'ko *óino meágo* 'are meago, oraindik meago' eta erdarazko *hoy no me hago,* biak berdintsu. Erdarazko *no* ori azentuduna izatea eta Izaba'ko (*ói*)*no,* ez: eztute beste alderik.

---

(6) Ona xuberotarren azentuaz esan direnetarik bildu ditugun bi lore: "No debemos silenciar aquí el hecho singular de que el suletino, apartándose en esto, más o menos, de *todos* los demás euskalkis [letra larria gurea da], ha adoptado como regular esta misma acentuación [erdal-azentu-modua, alegia] que la reputamos como la antitética de la vasca" (*El acento vasco,* Bermeo, 1932, 54). "Afortunadamente, es muy otro el acento tónico en otros dialectos y subdialectos vascos' (Azkue, *op. cit.,* 7). Azkue jaunak Bidasoa-aldeko izkera Zuberoa'koarekin elkartzen du emen.

(7) Ondarribia'n beintzat azentudun silaba besteak baiño luzeagoa izaten da. Azentua, Nils M. Holmer'ek erakutsi duen bezala, bigarren silaban (itz-asieratik asi ta bigarrenean, gero) agertzen da geienbat. Leen silaban datzanean, itza laburtu izan delako gertatzen da, batez ere: *átia* (<*aatea*), egaztia, eta *atía* 'borta'. Badira gaiñera beste zenbait, erdaratikakoak eta, legez kontrakoak. Orien artean, emen ere *málko.*

(8) Ormaetxea jaunak dionez eztago izkera orretan indar-bereizkuntza larririk silaba batetik bestera: "A causa del excesivo canturreo alargan notablemente unas sílabas sobre otras. En vez de *Joxantonio,* que se pronuncia en otras partes con los tonos inicial y final, dicen *Joxaantoniio,* conservando sin embargo en lo demás los acentos indicados" ("Acento vasco", *RIEV* 9 (1919), 1 urr., 15'garren orrialdean).

(9) Ori dio "Orixe"-k, aipatu artikuluan.

Nik eztut Ultzama'ko mintzaerarik entzun. Alaz ere, aski litzake *trintete* (*trinitate*) esaten dela jakitea (10), indar-azentua baduela edo izan duela igertzeko. Eztut Zaraitzu'korik ere entzun, baiña or daude lekuko vokal-sinkopak, Erronkari'n baiño ugariagoak: *aingru* 'aingeru', *aizna* 'aizina', *burña* 'burnia', *gaminta* 'ganibeta', *nabla* 'labaña'. Beriayn'ek eta berreun urtez geroago Lizarraga'k idatzi zuten Iruñ-erriko izkera galdua dugu, baiña agirian daramatzi indar-azentuaren zauriak: *bapedrak* 'bat bederak', *maindre* 'maindire', *mistrio* 'misterio'. Indar-azentuaren azpi-lanak ireki dituen sator-zuloek luzaroan diraute izkuntza batean. Begira dizaiogun aldameneko erdarari (*tiene(n)/tenemos, tener; tuesta(n)/tostamos, tostar; bien/bendecir; suelo/solar; cadena/candado; honor/honrar,* etc.) edo antziñako latiñari (*aptus/ineptus; cano/cecini/accentus; ratus/irritus; locus/ilico; nouos/denuo; pergo, surgo/rego,* etc.).

Indar-azentua esan dudan baiño zabalduagoa dagoelako susmoa dut Nafarroa'n barrena. Ezta, beraz, azentu-mota ori ain desegokia euskal-belarriendako. Batez ere, euskararen aitzoari, historiari, begiratzen badiogu.

Barruti ortan, egia esan, ustea da nagusi lakukorik ezean (11), eta usteak, dakigunez, alderdia ustel du, gutxienez. Hipotesis direlakoak, orratik, eztira ondar-gaiñean eraiki bear: bear bezalakoak direnean, aurrean dauzkagun gertariak azaldu bearrak bakarrik sortarazi baititu. Azken-aldi onetan bi lagunek eman dituzte argitara antziñako euskal-azentuari buruzko usteak eta biek, nork bere bidetik, batera jo dute: euskara zaarrak indar-azentua zuela eta azentu ori itzaren silaba jakin batean zegoela (12). Eta beldur naiz bestek ere, euskararen prehistorian barrena abiatzen baldin bada, ez ote duen indar-azentuarekin topo egingo.

---

(10) Ikus *Cristau doctriñe ... Ulzamaco apezac balle ontan yarduquitcen den usquerara biurtue,* Iruñan, 1931 (J. M. Lojendio jaunari zor diot liburuxka au ezagutzea). Cfr. galesez *trindod* lat. *trinitatem,* Kenneth Jackson, *Language and History in Early Britain,* Edimburgh, 1956, 512.

(11) Paperak ere izan ditezke lekuko, jakiña. Orrela Joanes Leizarraga'ren idaz-lanetan ageri diren azentu-markak. Beraskoiz'koa izanik (gaurko Bezkoitze'koa), Zuberoa'ko azentu-modua adierazi nai zuela dirudi. Ikus R. Lafon'en "Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins", *Mélanges Paul Laumonier,* 1935, 635 urr.

(12) A. Martinet, "De la sonorisation des occlusives initiales en basque", *Word* 6 (1950), 224 urr. eta geroago *Economie des changements phonétiques. Traité de phonologie diachronique,* Berne 1955, 370 urr. Nere iritzia *BRSVAP*-an agertu nuen, 7 (1951), 539 urr. Martinet jaunak uste du leen silabak zuela azentua; nik, berriz, bigarrenak, oraingo Bidasoa-aldeko izkeraren antzera.

Eztago astirik erantzun onetan iritzi orren alde aurkez ditezkean arrazoibideak azaltzeko. Zuzenak ala makurrak diren, geroak esan beza. Dagoeneko, beintzat, zerbait ageri zaigu argi eta garbi, edozein dudaren gaiñetik: euskararen historia eztugu bear adiña ezagutuko gaurko euskalki guztietako azentu-doñuak astiro azter eztitzaguiño. Or baitago urte joanek estali eta itxuragabetu dituzten izkutu askoren argibidea. Eta astiro eta bear bezala aztertu diodanean, gaur Ormaetxea jaunari Leitza'ko doñuaz entzun diogun azter-lana bezalakoak dauzkat gogoan. Aspaldi asi zen lanean arlo onetan eta urteek ondu besterik eztute egin bere jakinduria, ardoa bezala. Esan dut.

LUIS MICHELENA.

PALABRAS RECOGIDAS EN EL VALLE DE ARRATIA

AFRÚNTU: Tempestad, tiempo huracando. *A san afrúntue.* Dar un disgusto. *Suk emon dotzesu afrúntue.*

AIENAKA egon, edo ibilli: Quejarse, lamentarse. *Beti sabis áienaka.*

AITEXA: Padre político. Con el artículo hace *aitexea.*

ALLEGO: Discusión, pleito. *Allego bille dabil ori. Allégoa ipinikotzu gero.*

ALTZESA: Aumento, subida; p. e. de precios *Érrentak altzesea deukie.*

AMAXA: Madre política. Con el artículo hace *amaxea.*

AMANKÓMUN: En común. *Lurrek amankomun dábigus.*

APÉNAS: No parece que. *Apenas eurie danik.*

ARRÁNKALDU: Agrietarse. *Arin arránkaldu de ormea.*

ARRÁSO: hacer que. *Lo arraso yosu umeari.*

ASASKÁDU: Olgado. *Yakea asaskadu éidesu.*

ASASKALDI: Rato de expansión.

ASASKALDI bet artu: Expansionarse. *Nosean bein ondo dau asaskaldi bet artzea.*

ASPIKO-GONA: Saya.

ÁTAKAN: Repleto, rebosante. *Tranbie átakan dau.*

ATÍNIK: Decúpito, supino. *Oyan atinik egótea txarra da.*

ÁTXATXA: Azuzar a los perros.

AURRETÍSIK: De antemano. *Geusek éiteko aurretisik akordeu bea da.*

BANÁSEAN: De uno en uno.

BÁRRUNTEU: Barruntar. *¿Bárrunteu'osus bart lapurrek?*

BATES-ÉURREKO: Fig. Enrevesado. *Bateséurrekoa sara su txikitetik.*

BENDÁL: Honda.
BENDÉJA: Productos del campo que son llevados al mercado para su venta.
BÍNKE, Beinke (Interjeción): Claro que sí. *Markesen ba! dala pentseu ete deu ba?* ¡Binke!
BIRIPÓ: Papada en los animales. *Biripóa.*
BIRRÍSENA: Mote.
BÍSTEN: A la vista. *Ori bisten dauena da.* Palpable. *Ilgo dana bisten dau.*
BLONKADA: Golpe, p. e. de viento. *Aixe-blónkada batek botauen lurrera.*
BOLTZA: Bolsillo.
BOLTZERU: El que se encarga de tener el dinero.
BURUTASÍÑO: Ocurrencia. *Burutasiño bakotxik badeko orrek!*
DANDABÉLA: Testículo.
DERÍGOR, Derrigor. Derigorrean, Derrigorrean: Forzosamente. *Derigor ibili bear okerkerietan. Derigorrean eroan du eskolara.*
DÓMINE: Medalla.
DURDIDU: Aturdir, atontar. *Yoten bot yo agoan, durdidute itxiko't!*
EGÁBELA: Golondrina.
EGINEK: En punto. *Sortzirek eginek dire.*
EGINE: Exacto.
EGINEAN: Exactamente.
ELDEKORRI: Roña en las plantas.
ELEXA-TXORI: Gorrión.
EMOI: Golpe de líquido. *Gitxitu ein'yako emoye iturri orreri.*
ENBERASU: Estorbo. *Beti sagos enberásuen.*
ENBRATO: Mujerona.
ENDEMAS: Sobre todo. *Danak dire yatun onak, endemas aite.* Además, *Ondo begituko'tzie, endemas dirue bádakar.*
ENTRAMA: Filo. *Entrama gitxikoa da serrea.* Apetito, *Entrama onékoa da gixon ori.*
ERNEGEU: Rabiar. *Beti sagos ernegetan.*
ERNEGALDI: Rabieta. *¡Ernegaldi bet pase'ot!*
ERNEGU: Rabia.
ERREGULAR: Parece que. *Erregular elexako barik il de.* Así parece, *Diru asko ete deko? Erregular.*
ERRABI: Esmirriado.
ERRONKA: Fanfarria. *Erronka utzean dabil ori.*
ERRONKARI, Erronkoso: Fanfarrón.
ERRETÓLIKA: Murmuración. *Se erretólika dárabisu.*

ES ESE: No solamente, sino que. *Etorri es ese, yoan be'inde.*
ESKÁTIME: Petición. *Geur goxean elexán eskátimea egon da.*
ESKU-BÉARRA: Mano de obra.
ESTARTA: Estrada.
ESTUKURE: Apuro. *Nik pase'ot estukurea!*
FALTZO: Vago. *Geroau ta geroau, faltzoau soas su.*
FIN (Adjetivo): Trabajador. *Andra fine artu deu Erramonek.*
FIT (Exclamación): ¡Se acabó! *Onango bátean yoten deu, da, fit, esan agertu geau.*
FRANKU: Abundante. *Éurrerantzean eurie franku isingo da.*
GÁLAPAN, Gálafan, Galafadan: Corriendo. *Es ibílteko gálafan!*
GALAFADEA, Galapadea: Corrida. *Ik eindósak galáfadak.*
GALBANA: Pereza. *Au de galbánea.*
GÁSTEU, Gastau: gastar.
JENTÉTZA: Gentío.
GÓBERNEU: Cuidar de una persona o animal, o de la hacienda. *Ori gixona ondo góberneute dau.*
GORPUTZ-ALDI: Estado del cuerpo. *Egúnokas gorputz-aldi txarra dekot.*
GUÁTU: Agarrar. *Guatu'iosu samatik.*
IGESKA: Seco, magro.
IRÍKUTZI: Agitar un líquido en una vasija.
ISENTASIÑO: Nombramiento.
ISTUKI, Sistuki: Lugar pantanoso.
ITAURREN IBILI: Conducir el ganado emparejado en los trabajos de campo, arar, etc. (Cualquier clase de ganado.)
KAFRANGA (Fem.): Mari chico.
KAKITU: Asquear.
KANDELA: Moco.
KANTZASIÑO: Cansancio.
KARRAJU: Pasillo.
KATAMIGERLEA, Katumigerlea: Gato montés.
KARKAXADA: Cacareo, carcajada.
KAXA: Arca.
KEXA: Queja.
KEXEU: Quejarse.
KIKERA: Jícara.
KINKI, Kinkin: Alto, desgarbado.
KINTZANA: Sueldo.
KOMERENTZI: Abundancia, variedad, surtido. *Denda orretan komerentzi asko dau.*
KOMUNIDU: Convenir —en forma receptiva—; interesar. *Komunidu báyatzu eroan seinke.*

KONKÉ: Impedimento, pero: *Es éidasu konkerik ipini, gero.* Adj. *Konkébako gixona da ori.* Ese es un hombre sin exigencias.
KONPONDU: Reparar una avería o desperfecto. *Medi-kónpontan dabil etzean.* Bastarse uno mismo. *Bákarrik be konponduko da.*
KORDEL: Cuerda.
KOSTALASIÑO: Fisiol. Constitución. *Kostalasiño onékoa da sure gixona.*
KOXO: Cojo.
KUMUN: W. C.
KURRULLU: Pasador con mango.
LANTZEU: Pasador con mango.
LANTZEU: Lanzar.
LEJITO: Legítimo, auténtico. *Euskeldun lejítoa da ori.*
MÁKINETU: Arar el campo.
MÁMALA: Insustancial, tonta. Siempre femenino.
MANDAITU: *Iko mandaitue* "higo hinchado".
MANEO: Maña, habilidad, saber desenvolverse. *Ori andrea maneo bakoa da.*
MÁNKEU: Lesionarse.
MANTXU: Manco.
MARTXANDERA: Mujer que lleva productos del campo a la ciudad.
MATRAKÓSO: Pendenciero.
MEDI-ÁMARRA: Cuerda para atar las medias. (No se emplea para expresar liga.)
MENGAL (adjetivo): Tejido delgado, de poco cuerpo.
MOBIDU, Mogidu: Mover.
MODU: Posición económica. *Modu onean daus orreik.*
MOTXÓKIN: Colilla.
OLGANTZA: Diversión.
OLLOKI: Cobarde
ONDOA: Base. Parte gruesa del cayado. *Púntea ta ondoa.*
ORTÚARI: Hortaliza.
PANTALOI: Bragas de mujer.
PÁPALA (Fem.): Boba. *Ori neske ori pápala bat da.*
PAPAU: Imbécil. *Ken'ai ortik papau ori.*
PAREU: Colocarse, ponerse. *Gexorik pareu de. Pareu saite sútunik.*
PARKASIÑO: Perdón. *Estau sutzako parkasiñorik.*
PATXADA: Facha. *Selango patxadan saus.*
PATXADAS: Bien, correctamente. *¿Patxadas bisi sarie?* ¿Vivís bien?

PÁXEA: Faja de mujer.
PEKATÁRI: Pecador.
PÉNAS: Incómodo, con apuros. *Penas bixi de. Gexorik, penas egoten da oyan.*
PENA: Pena, dolor. *Ori de penea, ain gaste, da il bear.*
PÉPELO: Apocado.
PERNIL: Jamón.
PODÉSUS: A fuerza de. *Indesíñoan podesus bisi de.*
POTXÓN: Apelativo infantil cariñoso.
POTXONA: Verenda mulieris.
PRIJIDU: Freir.
PÚNTUEN: Hace un momento. *Púntuen egon da.*
SAKADIS: En chancletas. *Abárketak sakadis yantzi'osus.*
SAN BÁKOA: Apocado, de poco nervio.
SAKU: Saco.
SAKUTO: Alforja.
SEGURU: Seguramente. *Seguru seguru etzera estana etorriko.*
SEGURANTZA: Seguridad. *Estago segurantza andirik geurko munduen.* Certeza. *Ondo urtengo deuen segurantzarik bageunko.*
SERMOI: Sermón.
SERMOLARI: Predicador.
SÍGO: Columpio.
SUSTÉR: Fig. Fundamento. *Suk diñosunek estéko susterrik.* Raíz.
SUSTER-BAKO: Fig. Sin fundamento. *Suster-bako andrea artu deu orrek.*
TAMÁÑUEN, TAMÁÑU BETEN: En llegando a un punto. *Mesédeak ein bai bea, tamáñuen kantzeu eiten da bat.*
TAMÁÑU BETERA ELDU EGO ALLEGEU: Llegar a un límite.
TENIOLAK: Vísperas.
TENPLÉU: Calmoso, tranquilo.
TÉRSIO: Tiempo, hora. *Térsioa da:* Ya es hora.
TÉRSIOS: A tiempo. En buena hora. *Térsios állegeu gara.*
TÉRSIOAN: Idem. *Gixonak térsioan eskondu ein bea'deu.*
TIRITU: Disparar, tirar.
TRAGEU: Morir —solamente animales—. Matar de forma violenta a un animal.
TRAGADU: Fig. Condenado. *¡Tragadu ori!*
TREUSTIK: Nada, en absoluto. *Estaki treustik be.*
TRINKO (peyorativo): Cojo.
TÚTARRAS: Abundante, en el sentido de derroche. *Dirue tútarras gastetan deu úbenek.*

TXANPAL: Templado. *Ur txanpala;* fig. pegajoso, untuoso. *Beti deku ondoan, txanpal ori.*
TXÁNTXETAN: De bromas. *Beti sabis txántxetan.*
TXARRITO: Fig. marrano, sucio.
TXARRITONA: Fig. sucia, marrana.
TXILIPOTOI: Mariposa.
TXOKINO: Chamizo.
TXOLET: Bote vacío de conservas.
TXOTERO: Sombrero de mujer.
TXUMELAXO: Rana.
UNIÑO: Unión. *Euskalerrie uniño barik bisi de.*
YUGUDEA: Yunque.

ANDONI TOTORICA.

LOS NOMBRES VASCOS DE LOS MESES

A la vez que la publicación del DICCIONARIO ETIMOLOGICO DE LA LENGUA VASCA, que irá apareciendo en la Revista de la Academia, queremos presentar determinadas series de palabras, tales como los nombres de parentesco, numeración, nombres de los metales, días de la semana, etc., a fin de completar la labor etimológica de nuestro idioma.

Estos pequeños vocabularios en torno a tales series tienen la ventaja de reunir los términos referentes a los principales capítulos de la civilización, tanto material como espiritual de un pueblo, y facilitar así el examen y la valorización.

Inauguramos ahora con los nombres de los meses, de una manera sobria, sin amplificación mayor, unas indicaciones sobre los mismos.

Este capítulo acaparó desde antiguo la atención de los tratadistas, ya que Garibay compuso un trabajo sobre "nombres de los meses en la mesma Lengua" que vió Francisco Michel, pero desgraciadamente no se conserva. Igualmente Astarloa examinó estos nombres, y modernamente Nicolás Ormaechea, en EUSKALESNALEA e Isaac López Mendizábal en el BOLETIN DE AMIGOS DEL PAIS.

Aparte Bonaparte, Vinson y otros dieron la etimología de alguno o algunos de los nombres.

Micoleta nos dice que sólo los aldeanos de Vizcaya los empleaban en la forma vasca, mientras que los de las villas utilizaban los nombres castellanos, por lo que se abstenía de dárnoslos a conocer.

La cosecha más completa y segura la tenemos en el ERIZKIZUNDI de la Academia, que sólo omite los nombres de la región de Zuberoa, pero que ellos y el resto pueden ser conocidos por

los Diccionarios de Larrasquet, Azkue y Lhande principalmente, y almanaques.

Y primeramente la etimología de IL "mes". El vasco conoció anteriormente a Roma las grandes divisiones del tiempo en "año", "mes" y "semana".

IL "mes" significó originariamente "luna", "lunación" y de aquí "mes". La palabra IL está relacionada con BIL "redondo", o sea, "luna llena", cuya fiesta, por Estrabón, consta celebraban los celtíberos y sus vecinos (los vascones) y todavía se conserva en el calendario cristiano de "Pascua", "domingo", o sea IGANDE, "período de la subida", como ASTE "período del comienzo", o sea "novilunio" y "plenilunio".

ENERO.—El nombre más extendido es el de las formas que se dejan reducir a URTEBARRI-IL y URTEBERRI-IL, o sea el "mes del Año Nuevo". URTEBARRI como URTATS significa todavía "estreno" o con práctica céltica "AGUILANDO" ("au gui de l'année neuf", según la recta interpretación de esta palabra que todavía no recogen los diccionarios etimológicos).

El cristianismo combatió estas costumbres gentílicas y así el ayuno de estos días de las saturnales y el carácter de la liturgia de la Misa "ad avertendum ab idolis". Los ídolos en nuestro Prudencio son siempre "negros", de donde la innovación de ILBELTZ o ILBATZ "el mes negro" por ENERO.

Araquistain (el colaborador del P. Larramendi) recogió un lindo refrán en que se juega con los epítetos de "negro" y "blanco". Dice: "Cuando el mes negro (ENERO) es mes blanco (por la nieve), buena cosecha de habas aquel año".

14. El autor de "Jaungoicoaren Ama Birgiña guztiz garbiaren..." diferencia siempre incluso las flexiones de subjuntivo. *Escatuten dEutsut* "te lo pido", *jarichi dEidazula* "que me lo consigas" p. 51, *escatu dEutsunic* "que te lo haya pedido", *escatuten dEutsudana* "lo que te pido" p. 52, *erregututen dEutsut* "te lo ruego", *jarichi dEidazula* "que me lo consigas" p. 52, frente a *alabadu dAigun* "alabémos" p. 5.

15. Echeita-tar Jose Manuel: *egitten dEutset* "les hago p. 6.

Luis Michelena estudia en "Nota sobre algunos pasajes de Refranes y Sentencias de 1596", publicada en el B. R. S. V. A. P., esta característica *e* de dativo. Con la separata me ha enviado tres fichas, que las transcribo a continuación:

Ms. Oñate (Errectore Jaun baten instruccinuac ezconduric vizi dan bere Adisquide Necazari batentzat. Finales del siglo XVIII: por desgracia, no tiene anotada la página del texto que se transcribe a continuación):

¿eta nola guaza Odei demporaco guizur sinisqueta oneicaz, bardin Odei aserriac ecusi oi DIRIAN alderen batetic aurquiquetan bada, iñorc ondarric EZ DEQUION Leze andiren bat, nire gazte demporan Oñatin, Estudioetan nebillela, entzun oi neben leguez Gaiztazuluaren izena DAUCAN Leze bategatic?

J. Ochoa de Arin, Doctrina Christianaren explicacioa, Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itceguitendan moduan (S. Sebastian, 1713), p. 170.

cerren baldin nere proximoac EZ BADIAQUIT niri cer juicio, cer sospecha, edo cer murmuracio, edo ausentcia gaizto eguin dodan (sic) *beraren contra, zoratasun andia izango lizate neuronec berari esatea,*

Testamentu zarreco eta berrico condaira, Lardizabal, 209. (1.ª ed. Tolosa 1835).

Jerusalen-dic irten zala, Salomon-ec JAQUIN CIONEAN beste biac bezala, ilerazo zuen.

El ms. Oñate registra la forma *ez dEquion* "que no se lo sabe", frente a *dAucan* "que lo tiene". Ochoa de Arin, *ez badiaquit* "si no me lo sabe". En esta última flexión al parecer encontramos la

raíz *-aqui* y una forma anterior **d-E-aqui-t.* Lardizabal con la forma *jaquin cionean* atestigua un hábido de emplear el verbo *jakin* de forma tripersonal.

Severo de Altube en su "Observaciones al tratado de Morfología Vasca" (Bermeo 1934, p. 115 y 119), objeta a Azkue como no correctas las flexiones del tipo *dautsat,* cuya práctica recomienda la "Morfología", y defiende las del tipo *deutsat* tradicionales, citando en favor de esta afirmación unos cuantos ejemplos de Refranes y Sentencias y de Capanaga, y luchando contra el argumento de permutación de *a* en *e* que Azkue defiende.

De los textos citados podemos deducir una oposición clara en el vizcaíno antiguo de los fonemas *a/e,* siendo en algunos casos determinantes del valor semántico de flexiones verbales. Refranes y Sentencias, según su sistema, diferencia *dEroat* de *dAroat, eztEkian* de *eztAkian.* Capanaga *dEigula* de *dAigula.* Barrutia, *eztEgizuen* de *eztAgizuen.* Micoleta, *dEysu* de *dAysu.* Los autores del siglo pasado que no confunden en el modo subjuntivo la característica que estudiamos, así como también los anteriores, oponen *dEizun* a *DAizun, dEigun* a *dAigun,* etc.

De los autores citados, Moguel, el de "Peru Abarca", Prai Bartolome y Uriarte no usan en las formas de subjuntivo la característica de dativo *e,* confundiéndose algunas formas no dativas con las que lo son. En el modo indicativo siguen utilizándolo, pero se hace necesario suponer que estos autores no tenían conciencia de su valor y utilizaban dichas formas por pura tradición, tanto oral como escrita. Los demás autores estudiados hacen la diferenciación y en el subjuntivo existen formas en oposición.

Los autores del siglo pasado, exceptuando las flexiones de *eretxi* que solamente se emplean de forma tripersonal, no utilizan flexiones verbales tripersonales no auxiliares, siendo ya arcaicas las que encontramos en los más antiguos.

Ya en su "Euskal-izkindea" (Bilbao 1891) Azkue propuso como formas más lógicas las *dAutsat, dAutsu, dAutsagu,* etc., y a pesar de que posteriormente calificó esta obra primeriza suya como pecado de juventud, en cuanto a estas formas verbales no cambió de criterio en ningún momento y las utilizó literariamente, y posteriormente las incluyó en los paradigmas de la conjugación de la "Morfología" como normales y recomendables, sin hacer caso de las recogidas en investigación de campo más que de forma general y rápida en la página siguiente. Todo esto después de haber recorrido un buen número de pueblos pertenecientes al dialecto vizcaíno y no recoger flexiones con la carac-

terística *a* más que en Orozco (en Orozco y Barambio, dice la "Morfología", p. 703, pero en el manuscrito no figura Barambio como pueblo investigado), y éstas muy dudosas, pues en el flexionario manuscrito donde iba anotando las formas que oía, en la columna referente a Orozco aparecen en la misma página más formas con característica *e* que con *a*. Así tenemos, p. e.: *dAustek, dAust* y un poco más abajo *dEumat, dEume, dEumagu. dEumei.* En la siguiente página *dAutsie* pero *dEuskuk, dEutsut, dEutsubiet* y finalmente *dAutset,* pero en la siguiente página *dEutsegu,* etc.

Flexiones del tipo *dEutsut, dEutsat, dEutso* recoge en Barrica, Lequeitio, Guernica, Navarniz, Bolibar, Ceanuri y Cigoitia, mientras que en otras localidades recoge formas del tipo *dotsu, dutsu* e incluso *tsat, tso,* etc. En Eibar recoge *dEstazue, dEtsat,* etcétera.

Azkue suponía, según se deduce de la p. 616, art. 858 de la "Morfología", que las flexiones del tipo *dAutsut* eran más antiguas, y que debido a que el fonema *a* en bastantes posiciones ha perdido vitalidad permutándose en *e,* había surgido *dEutsat,* y pese a todo el peso de la tradición literaria, quería volverlas al estado que él suponía primitivo, y al mismo tiempo más lógico.

Por otra parte, las flexiones verbales *dautsogu, dautsot, dautsozu,* etc., que en la actualidad también circulan en la literatura, no son más que puros barbarismos literarios.

El hecho de la pérdida de vitalidad del fonema *a* en algunas posiciones parece un fenómeno más o menos relacionado con la arcaización de las flexiones verbales tripersonales no auxiliares del vizcaíno antiguo.

Que yo sepa, solamente conservamos vivas en el lenguaje diario las flexiones de *eretxi,* que únicamente se emplean de forma tripersonal: *deritxat, deritxazu, deritxo, deritxagu, deritxazue, deritxie.*

He aquí algunos ejemplos que recoje "Peru Abarca":

P. 120.

M. J. ¿Cer esango deutsut bada, ezpadaquit celan esan eusqueraz?

P. Esaizu bada edolan bere bat, ta nic esango deutsut celan DERICHON.

P. 129.

Lurraren gañian lastamarraga bat estalqui zantarragaz, ta burco ez obia. ¿Cer DERICHU?

P. 131.

P. Bai, ta igüin baga: ez neuque cocadaric eguingo, ez errebesau guraric eracutsico oneen obrera baltz ta escu cetacatubac icusi arren; eta DERICHAT euren janguriac gueituco leuquiala neuria.

P. 138.

Lino mueta bi dagoz, bataRI DERICHO agorra, ta bestiari lina beria.

Si alguna vez considera la Academia de la Lengua Vasca oportuno pronunciarse en favor de las formas literarias que más títulos ostenten para ser consideradas como más cultas y más elegantes, y por lo mismo correctas, no cabe la menor duda que para el dialecto literario vizcaíno deberá hacerlo en favor de las formas del tipo: *deutsat, deutsazu, deutso, deutsagu, deutsut, deusku,* etc., y para el subjuntivo con idea de dativo *deizun, deion, deigun, deiogun,* etc., etc., que además de tener una tradición literaria desde muy antiguo a su favor, son depositarias de un matiz que no debemos arcaizarlo.

Fenómeno fonético que registran los autores clásicos vizcaínos.

1. Refranes y Sentencias: *DirEanac* "los que son" n.º 315, *garEa*[*n*] "seamos" n.º 334.

2. Micoleta: *etorri sirEá*[*n*] "vinieron" p. 26, *dirEala* "siendo" página 28.

3. Capanaga: *içan cirEan* "fueron" p. 22, *iaussi guiñEan* "caímos" p. 31, *iaioten garEan* "que nacemos", *içan cirEan* p. 71. *dirEan* "que son" p. 93, *doEanean* "cuando va" (forma anterior a *doianean* que actualmente se usa en algunas zonas, de la misma manera que *arrazoea* "la razón" dió *arrazoia*), *içan cinEan* "fuiste" p. 131.

4. Barrutia: *zaran* "que eres" p. 403, *jo ziran* "se pegaron, se partieron (nueces)" p. 413, *doEan* "que va" p. 413. En la copia manuscrita de Barrutia solamente se registra el fenómeno que estudiamos, en las formas del tipo *doEan.*

5. "Cristinaubaren Dotrinia" de Olaechea: *izan ete dirIan* "si habrán sido" p. 92, *garIan* "que somos" p. 97, *dirIanac* "las

que son" p. 129, *estutuco cirIan* "se apurarían" p. 196, *ibili ciñIana* "que anduviste" p. 198.

6. Moguel en "Peru Abarca", publicado en 1881: *eguin dirIan* "que se han hecho" p. 77, *jagui cinIan* "te levantaste" p. 116, *batu zirIan* "se reunieron", *erruquitu zirIan* "se compadecieron" p. 177, *zarIan* "que eres", *zarIanic* "que eres" p. 190.

7. Fotocopia del manuscrito de Zabala: *dirEala* "que son" p. 2, *etzirEan amaitu* "no se terminaron" p. 8.

8. Prai Bartolome: *ill dirIan* "que han muerto", *ill zirIanac* "los que murieron" p. 85, *dirIan* "que son" p. 174-75, *dirIalaco* "porque son", *sartuten dirIanac* "los que entran", *sortuten dirIaneti* "desde que nacen", *vitzi dirIan* "que viven" p. 234, *dirIanac* "los que son" p. 15 final.

9. Juan Jose Moguel en "Baseerritar...": *ez diranac* "los que no son" p. IV, *izan ciralaco* "porque fueron", *esan oi ciran* "se solían decir", *entzuten ciran* "se oian" p. 106. Solamente registra el fenómeno que estudiamos en las formas del tipo *garIalaco* "porque somos" p. 106, *ez zarIana* "que no sois" p. 127.

10. Fr. Pedro Astarloa: *izan cirIan* "fueron", *juan cirIanac* "los que fueron", *izan cirIala* "que fueron", *irago cirIanac* "los que pasaron" p. IV, *batuten zarIan* "que te reunes" p. 125, *gueratuten dirIanac* "los que quedan" p. 199, *etorrico cirIan* "que vendrían" p. 209.

11. El autor de "Egunoroco lan-on...": *igaroco dirIanac* "los que pasarán" p. IV-V, *guelditu zarIan* "que has quedado" página 111.

12. Fr. Jose Antonio de Uriarte: *eguiten diran* "que se hacen" p. 17. Solamente registra el fenómeno que estudiamos en las flexiones del tipo *zarEan* "que eres" p. 34, *vici garEan* "que vivimos" p. 88.

13. El autor de "Manual Vascongado...": *il cirIan* "murieron" p. 115, *jatsi ciñIan* "bajaste" p. 162.

14. El autor de "Jaungoicoaren Ama Birgiña guztiz garbiaren...": *bici ciran* "vivían" y en cambio *cirIalaco* "porque eran" p. 19, *ibili ciran* "anduvieron" y en cambio *biurtu cirEanean* "cuando volvieron" p. 19, *zarEana* "la que eres" p. 50, *zarEan* "que eres" p. 51.

15. Echeita-tar Jose Manuel: *bizi dirEanentzat* "para los que viven" p. 6, *joan zirEan* "fueron" p. 43, *sartu zirEanean* "cuando entraron" p. 119.

ALFONSO IRIGOYEN

RELACION DE LOS NOMBRES DE CASERIOS DEL TERMINO MUNICIPAL DE MUNGUIA

1. He procurado recoger de los mismos baserritarras la pronunciación vasca de sus caseríos. El baserritarra, cuando un funcionario público pregunta en castellano el nombre de su caserío, refiere a veces un nombre que no coincide con el que utiliza en la conversación en vascuence; así, por una parte dirá *Giberrizaga,* cuando todo el pueblo hablando vascuence dice *Gibertzá.* En estos casos he puesto entre paréntesis la pronunciación en vascuence a continuación de la que el aldeano considera oficial.

2. Sabido es que en el valle de Munguía, como en otras partes de Vizcaya, "casa" se pronuncia *etze.*

3. Existe la tendencia a acentuar como agudos los nombres terminados en vocal, sobre todo los no compuestos. Sin embargo, este acento no supone más que una muy leve mayor intensidad de acento respecto de las demás sílabas que también se pueden considerar acentuadas.

4. Es de notar, en algunos topónimos vascos usados en castellano, la presencia de una *s* final que en vascuence no se pronuncia generalmente. Por ejemplo: *Maruchagas,* etc.

Barrio Atxuri:

Landetxo, Bizkerre, Beitti, Urikoa, Itturribekoa, Etzezarra, Bártuné (Bártoné en el Barrio Iturribalzaga), Larrekoetzebarri, Arriétane, Goitti, Itturrigoiko, Érrone, Etzebarri, Kórtesene, Motxone, Legarburú, Ittúrbarriñé, Pérune, Fírmone, San Martin, Basábitxi, Zuetza, Lopené, Estratza, Txoriñé, Aurrekoetze, Yane,

óraindi (óraiñi), Martune, Gauekoetzebarri, Dísene, Atxurikoerrota, Atxurizubi, Itturriagagoikoa, Itturburú, Landetxokoerrota, Solokoetze, Intxausti, Goikolandetxo, Ormaetze, Eguskietze, Zabálondo, Bengoa, Gaisane, Kátillune, Basozabaleta, Giberrizaga (Gibertzá), Erreruene, Markaidane, Mantxano (Mantxau).

Barrio Atela:

Makoaga (Makoá), íberrene, Laurenaetzebarri, Basterretze (Bastartzé), Olatxu, óraiñe, Gasandá, Atekeneetzebarri, Torroto. Ábadene (con acento en la segunda *a* en el Barrio Basozabal), San Antonetzebarri, Mantsorris, Bordá, Atékene, Atela, Átelene, Mantzóbarrene. Atxutegi (Atxúti), Mantsorrisbarrene, Laurénaetzebarri.

Barrio Basozabal:

Urtíñerrota, Señóretze, Goirí, Uriarte, Tallerialde, Bidegane, Txómiñene, Gondrakoetzebarri, Abádene, Etxatxu, Gipústegi, Talleri, Aísene (Áxene), Káldone, Agarre, Iberburú, Urtiñe, Máriñé, Ibaiondo, Drakene, Atzekoetze, Artekoetze, Ángelene, Aretxá (Aritxá), Mántxané, Artétxetá, óleta, Bekoetze, Goikotzebekoa. Astúbitta.

Barrio Elgezabal:

Amezaga (Amétza), Gastañalde, Goyenengo (Góñengo), Madariaga (Madariá), Bidaurrene, Errándone, Bidarte, Mántzané, Bideetzebarri, Dénda, Mitxelené, Abárota, Gipuzti (Kipústi), Añibar (Añibarré), Arrittugané, Ametza, Enderiké, Landa, Legarreta, Lúkittá, Mentxaka, Ibarrondo, Máriñé, Libarondo, Bártonetzebarri, San Lorentzo.

Barrio Emerando:

Elexpuru, Sorrotzené, Orube, Orue, Mendieta (Ménditta), Ibarra, Molinoolabarrieta, Searretze, Ibarretzebarri, Oar, Ojangorta, Elorrikoetzebarri, Etzetxikerra, Agarre, Zubitxueta (Zubítxutá), Itturrikoerrota, Bidékrotzé, Amesti, Ugalde, Ibaizabale, Gáltzeta (Káltzeta), Ereñozaga (Eríñotzé), Itturriaga, Urketaetzebarri, Martategi (Mártegi), Muruagoikoa, Torretzena, Txíkitoné.

Barrio Fruniz (Fruíz):

Batiz, Plakuené, Ausokoetzebarri, Lemoriké, Txabola, Audogoitti, Kerisetzebarri, Soloarrieta (Soloarttá).

Barrio Gamiz (Gamíz):

Ugarte, Burgosarré, Endemaño, Gáñurí, Burgo, Bidegain, Blánkoné, Urondo, Txosná, Belako, Sándeideré (Sandiñeré en el Barrio Villela).

Barrio Iturribalzaga (Itturbaltzá):

Larrábizkér, Lárreta, Goitti, Legardá, Manúgarrené, Egia (Egí), Bártone, Górañe, Tómane, Urra, Ittúrsarre, Mátiñe, Larratxueta (Larrétxutá, Larrátxutá), Górañe, Itturri.

Barrio Larrauri (Lárrori):

Trobikaerrota (Trobíkerrotá), Gíñertzá, Andirengoetze, Atzekalde, Elixalde, Enrikene, Pantikose, Txirlone, Erdizubi, Olabarri, Tabernaserre, Erkoreka, Etxatxu, Angelenaoste, Larrauritxu, Aresti, Eríñotzá, Amétzate, Txapelené, Elexalde, ólalde, Ijiñone, Urikoetze, Ábió, Sakonetzebarri, Barrene, Alipio, Sumétxagá, Munepe.

Barrio Llona:

Ateka, Mostegi (Mostei), Loba, Txaranda, Alborrené, Lobabeskotze, Ástiñe, Aborrene, Górdesené, Boluerrota, Axpe.

Barrio Markaida:

Arriaga, ískoas, Iskobeco, Arené, Barandikegoitti, Kortazar (Kórtazarre), Mendibille, Barandiké.

Barrio Marútxaga:

Portume, Arratena, Urbieta (Úrbitta), Alkatena, Txatximieta, Mamotegi, Lertxundiaga, Artamoniz, Andrakena, Ganbone, Mateiz, Etxatxus, Mautxaga, Iketza, Artadi, Txatximintxe.

Barrio Maurolas (Laukariz-Laukríz):

Fraidene, Laukariskoetzebarri, Antzoné, Ambé, Artebakarra, Ibaigane, Asolabarri, Zabalgane, Elizondo, Beasko, Landresmen-

di, Kondezubi, Zabalbekoa, Gálañe, Amaliene, Makatzetzebarri, Mendipe, Maurolagoitia, Amoena, óletze.

Barrio Morga:

Gabatika, Oruetxu, Oretxu, Zabaetzebarri, Urtènetze, Suetza, Menike, Olagarta, Golzarri, Golsarre, Guardia-Santurrene (Santurrone), Zabale, Guardiaetzebarri, Orube, Orue, Guardia, Lagorta.

Barrio Trobika:

Errementáritzé, Agarre, Lándeta, Martintxoné, Landibar, Azkorra, Elordui, Elordi, Atekane, Zubieta (Zúbitta), Legardá, Sarrí, Uribarri, Berteiz (Bertíz), Agargoitti (Agarregoitti), Páladone, Landaberdé, Larragán, Kóndebaso, Etxatxu, Borkelené, Maitegi (Maítti), Orueta, Grásiñé, Trobiké, Seláyetzé, Larrabeittí, Txabalene, Santa Maríñe.

Barrio Villela (Birlé):

Isegarre (Isegarrí), Elortza, Torrontegi, Landesa, Torre, Lanbide, Gondraondo, Olabarrieta (Olabárrittá), Gondra, Lábetze, Zapateriñé, Txatxarramendí, Birlé, Góndraondo, Lárgone, Sagasti, Antsoné, Abarokoetzebarri, Errementari, Márketze, Torroto. Ansoné, Basarte.

A. CAYERO

"ZIPITRIA" ABIZENAREN GORA-BEHERAK

"Zipitria" abizenaren etimologia, ez da errezenetakoa. Itzaren itxurari begiratzen badiogu, ez du gure arteko beste abizen askoren antzarik, naiz asierako "zipi" orri begiratzen diogula, naiz bukaerako "tria" orri. Era guztietako "berdiñik gabea" arkitzen degu abizen au.

Ala ere, ezin uka dezaiokegu bere euskal-izaera. Euskalerritik landa ez dago Zapitria'rik. Gure artean erabiltzen da bakarrik. Guk dakigularik beintzat.

Oraingoa ez bezelako beste itxuraren bat ote-zuan, ba, bere sortzean? erabilliz-erabilliz aldatu zaion beste itxuraren bat? Begiratu baterako, ala dirudi. Eta, izan ere, ala ageri da, abizen bezela izan duan bere bizitzan. Beste era eta itxura bat zuan len. Ibillian-ibillian aldatu zaio era ta itxura ori.

Gai ontan dakidana esango det nik.

* * *

Beste zerbaitetarako abizen au aztertu bear izan det orain berriro. Eta lenengotik orixe eritzi nion: iñolaz ere *ab initio* etzala "zipitria" izango, beste zerbait baizik. Eta ola, zerbait asmatu bearrez, metatesis bat gogoratu zitzaidan bapatean: itz onek bere baitan, bere silabaetan, metatesisen bat —toki-aldatzeren bat— izan ote-duan: bere silaba-arteko aldatzeren bat. Itz batean: ZiPItria ez baño ZiPRItia izana ez ote-dan asieran... Olako metatesisak askotan gertatu bait-dira gure abizenetan. Edonork daki *Alberro* ta *Alberdi, Arbelo(a)* ta *Arbeldi*'ren metatesis dirana; berdin baita *Salutregi, Salurtegi*'rena, ta *Satrustegi, Saturstegi*'rena... Berdin bertatu bait-zitekean baite gure *Zipitria*'rekin ere: metatesis errex baten bitartez, *Zipritia*'tik *Zipitria*'ra igaro izatea, alegia...

Zipritiak ba'lituzke euskeraz bere antzeko beste izen asko; *Azpeitia* ta *Azkoitia* urruti gabe adibidez; ta *Arratia* ta *Albertia* ta oien antzeko beste asko ta asko. Gure abizen batentzako bukaera erosoa bait-da beti ere *-tia* ori; *-tria* bukaerarik, berriz, ez bait-da arkitzen gure izendegietan.

Zipri'ri bagagozkio, berriz, errez izan diteke *Ziprian*'en laburpen bat, *Satur,* adibidez, *Saturnin*'en laburpena dan bezela... *Zipri-tiak* "Ziprian en etxea" esan nai, alegia... Orra or nere lenengo gogokaldia gai onetan.

Gero, ordea, Bataio-liburuetan-da saiatu bear izan det; eta pozik asko ikusi al izan det, ez nenbillela ain oker nere asmakizun ta gogokaldietan. Liburu aietan oraindik goragoko iturburu ta etimologi bat ere arkitu al izan diodala, ezik, abizen berezi oni. Ara.

Andoain-inguruan dago geien zabaldurik abizen au. Eta Andoain go Bataio-liburuetara-ta jo nuan orain berriro, zerbait argitasun-billa nere bearrerako. Eta ara an arkitu nuana.

1738'gn. urteko Confirmatuen Liburua aztertu nuan lenengo; eta ideki orduko izen auxe arkitu nuan: "Joseph de Zufritia"; eta andik laister beste au: "Manuela de Zufritia". Bañan urte berean, beste au: "Francisca de Zufitria"; bañan andik laister, berriz ere, "Francisco de Zufritia". Guzti ori 1738'gn. urtean.

Oar bat merezi du guzti onek: ikusten danez, urte oietan abizen au aldatzen ari da, aldakuntzan sarturik dago bete-betean. Batean *zufri,* bestean *zufi* agiri da. Dana dala —eta au nere lenengo ametsaren aurka— *Zipri*'ra ez baño, *zufi*'ra areago jotzen du; ots, *zubi*'ra edo-ta *zubiri*'ra, *zufiri*'ra *(zufri = zuf(i)ri).*

Liburu berean aurrera jarraiturik, bañan beste idazkera batean, 1745'gn. urtean izen oietxek agiri dira: "Maria Angela de Zipitria", eta andik laister "Manuel de Zipritia" (1) (nik amets egin bezelako *Zipritia);* bañan urte berean andik aurrera beti ta beti *Cipitria* agiri zaigu, eta ez, len bezela, *zeta*dun, *ce*dun baizik.

Olakoxe gora-beherak izan dituala azaltzen zaigu abizen au gure Sakramentu-Liburuetan: Zufriti, Zufitri, Zipriti, Zipitri... Zuzen-bidez bai bait-dirudi *Zufiri* abizenetik sortua dala.

---

(1) XVII gizaldiko Bataio-Liburuan, *Zipritia* agiri oi da bakarrik luzarroan, *Zipritia* (ots, *Zipritegia*), "casa de Ciprian" bailitzan.

Bukaerako *-tia* orri buruz ere zerbait esan dezagun.

Jakiña da, XIII gizaldiko pergaminoetan Armentia'ren izena *Armentegi (Armentehi*-eta) asaltzen dana. Beraz *-tegi* bat, ibillian-ibillian, *-tia* biurtu zaigu. Ala berean, gure artean ikusten degu baita, *Insausti*'ren ondoan bizi dala *Insaustegi bat* ere; eta baita *Beiztegi*'ren ondoan *Beizti* bat ere; eta *Ollakindegi*'ren ondoan *Ollakindia; Zumalakarregi*'ren ondoan *Zumalikardi* bizi dan bezelaxe... Oyartzun'go antziñako *Auspagindegi* bat gaur *Espaindi* biurturik ere arkitzen bait-degu... Eta guzti onek auxe dakar: *-tia* ori *-tegi* dala askotan.

Gure *Zufritia* ori ere ez ote-zan izan len, bere asieran, bere sorreran, *Zufiritegi* "casa de los Zufiria"?

Elitzake arritzeko gauza izango.

M. LEKUONA

EIBAR'EN ERABILTZEN DIRAN BURDIN LANGINTZAKO ITZ TEKNIKOAK

Aintziñako garaietan ez dut zalantzarik burdin lanetako tekniku itzetan euskera aberatsagoa izango zala, aroen eintsuka beintzat. Ola-zarrak Euskalerrian goren egon ziran garaian euskera utsa egiten bai zan.

Iturriza, Larramendi, Gorosabel, Mogel eta beste batzuek ere eman ziguten beren berri; Bizkai ta Gipuzkua'ko foruetan tarteka marteka agertzen zaizkigu batzarrak beren alde artutako erabagiak; ikusten dugu euskera gauza zala aro aietako tekniku gaiak erabiltzeko. Gero, joan zan gizaldi erdiruntz, sartu zan teknika berriaren iraulpena Euskalerrian barna. Gauzak azkarregi etortzeak edo euskerak beren aldakerak garaiz artu etzitualako, ta guztiok ezagutzen dituzuten ta nik esan bearrik eztagoen arrazoi askogatik, gure izkuntza teknika-gai guzietan pobre gelditu zaigu.

Gure errira sartu zaigun teknika berri ori arrotz errietatik etorria dugu, erdal izkuntzekin ornitua. Egia esan, euskaltzaletasuna ere oso berandu erne zan gure errian eta lenbiziko euskaltzaleak naiko lan izan zuten beren gain, arlo guzietara eldu eziñik. Orain, ardura oiek gure zentzuari ajola zaizkio eta gaurko euskal semeok, nortasunik ba-dugu, orretan ixuri bear dugu, gorputz da anima gure zaiñetako odola; euskaldun zintzoak ba-gera beintzat. Erri guziak beren izkuntzak eta oiturak goratzen dituztelarik gu ezingo gera egon loak artuta.

Joanak-joan, eta aro berrieri gauza berriak. Bakoitzak bere mallatik jarrai dezagun gure aurretiko euskaltzale nagusiak iriki zizkiguten irakasbideak landuaz. Euskerak iraungo ba-du, iñork ezin lezake ukatu lan arduratsuak ditugula gure gain eta leiatsu jokatu bearko dugula. Ez bakarrik euskera lantzen; erriari eus-

kaltzaletasuna sartzen baizik. Euskaldun berriak egitea añako lana da len diranei zaletasuna sartzea; euskeraz mintzatzeko, euskeraz irakortzeko ta zaletasun berdiñak besteren gogoetan ernetzeko. Orrela, irakasle ta gramatika bearrik gabe denok landuko genuke gure euskera.

Euskera landua bearrezkoa dugu, baña erri-euskerari garrantzi geiago eman bear diogu, berriak ortik asi bearra bai dute. Gañera erri-euskerak, askok uste baño mamitsuagoak dira ta ba-dugu bertan gairik asko literatura ta teknika saillak aberazteko. Zenbat itz, esaera, aditz eta joskera, gure artzai, nekazari, arrantzale ta langilleen agoetan oraindik idatzi bageak diranak? Azkue zanak amaika lan egin zuen gai ortaz, gizon batek egin lezakeanik ere sinistu ezindako aña. Oso gaitza da beste Azkue bat sortzea gure artean, baña arek bakarrik egin zuena guk askoren artean egin genezakeala ezin ukatu.

Emen dijoazkizuen burdin-laneko tekniku itzak, geienak euskal iztegietan arkitzen eztiranak eta batzuek emengo balio orrekin erabiltzen eztiranak, Eibar'en bilduak dira. Nun eta Eibar'en, askoren ustez euskerarik mordolloena egiten dan errian. Beintzat erbestean orrela entzun izan dugu, ta sarritan erderaz egiten dutenengandik. Oieri noiz sartu bear diegu buruan erdera ez dala nor euskeraren epaikari egiteko?; baña zertako gauza orrekin burua berotu, duazela beren erderari akatzak billatzen.

Itz bakoitza obeto adierazteko, lerro laburretan Eibar'en nola erabiltzen dan jarriko dut, eta bide batez Eibar'ko aditz eta joskeraren berri emango dut, iñoizko denboran norbaitek bertako izkera estudiatzerik nai balu, bere lana errezteko asmoz. Eta gauza ortarako nola nire iritzi bakarra jartzea etzaidan ongi iruditu, esan bearra dut Jose Luis Ugarteburu ta Imanol Laspiur nire adiskide euskaltzale biak orraztu bat eman diotela lan oni.

Baña lan onen asmorik gartsuena burdin-laneko teknika itzak piztea da; gaur egunean ainbeste ta ainbeste euskaldunen ogi bidea dan burdin-lana. Teknika gaietan idaztea oso erreza baida, burdin-laneko teknikako arlorik aundienak dibujo ta zenbakien bidez egiñak daude, ta oiek mundu guzian berdin erabiltzen dira. Amaika tekniku ezagutzen dugu Eibar'en prantzez jakin gabe "La Machine Moderne"'ren arpidedun diranak, ta bearrezko gauzak iztegitxo baten bidez aldatuta nai duten guzia ulertzen dutenak. Burdin-laneko teknikako literatura baño pobreagorik ez baita, ta alan da guztiz ere makiña bat euskaltzale bildurtzen da pentsaurik euskera gai ortarako gauza ez ote dan.

Eta geiago luzatu gabe sartu nedin lanaren muiñera. Irakorleak ikusiko duen lez, gauza batzuek zuka eta beste batzuek ika ipiñi ditut, iñoiz alkar-izketan erabiltzen ditugun bezala.

AIXE-ZULO, poro de la pieza fundida.
Azkenengo labakadan eindako piezak aixe-zulua besterik etxakoa.

AKABATZALLE, pulidor, bruñidor.
Gure akabatzailliak aindu bai, baña, oindiok ezteskuez akabau piezak.

AKABAU, pulir, bruñir.
Pieza fiña geixki akabauta arlote gelditzen da.
Akabatzailliak esaun izaten dabe kalian be; musturra baltza. Baña ondo irabasten dabe akabatzen.

AKATZ, mella, muesca.
Akabautako piezak ditxuk eta kontuz akatzik atara barik.
Or ertzian akaztxo bat atarako ba-ezkixo asko-obeto gelditxuko litzakek.

ALBATA, compuerta de presa o embalse.
Maaltza'ko (Malzaga'ko) inddar-etxian albatia zabaldu dabe presia usteko. Itxuria daonez garbitzeko asmua dake.

ALE, grano.
Apurtu atan (zaidan) erremintxa onek galtzairu ona izateko ale larriegixa jekan (jeukan).

ALEKA, chatarra que se arranca al producir el agarrotamiento en cualquier superficie de rozamiento, por lo general, debido a la falta de lubrificación. (Erderaz ez du izenik).
Ejiari alekiak obatu etzak eta dana urratuta gelditxu dok.
Egixa-ok (egia duk), itzaleko alekia akak.

ALEKIA ARTU, agarrotarse un eje en el cojinete.
Makiña bati bein ejiak alekia artu ezkero arreglo zailla izaten jok eta obe dok olixo naikua ein da kontuz ibiltzia. Ba, okerra laster eitxen dok, baña gero konpontzen izaten ditxuk kontuak.

ALPER, taladro de sobremesa.
Alperrik jardun biarrian jo-ta-ke, alperreko biarrak beti alper.

ALTZAGARRI, calzo. (Zarrak bakarrik erabiltzen dute).
Makiñia bardintzeko altzagarrixak biar.

APAL, estante.
Danok kabiduko ba-dira apal bat geixao ipiñi biakok.

APALADI, estantería.
Auxe dok auxe, apaladi guztia gaiñezka gelditxu dok eta ultza bat-pe geixao kabidu ezin.

APURTUNA, rotura.

Ori erremintxi-ori be, ointxe eztok luzeroko, apurtunia agertu akok-eta.

AR, macho, diversas clases de herramientas que se introducen en otras.

Trokel arra auzi da.

ARASA, estante.

Ezeik ipiñi or geuza geixao arasok ukat ein biar juek eta.

ARASAK, estantería, estanterías.

Arikitxa'k Arragueta-kalian (1) daukan almazenian bai daozela arasa galant-askuak.

ARDATZ, eje. (EJE bezela Eibar en baserritarrak bakarrik erabiltzen dute).

Uda azkenerutz, ire (garo) sasoian, bein baño geixaotan entzungo zenduen burdi-ardatzen txistua; iñoiz bai txa senetik-urtetzeko (2) aña be.

ARDATZ, macho de roscar.

Orrek ardatz txikixak dira ta kontuz ezpazabiz errez apurtuko atzuz; ze... xaxara (3) barik ibiltziarren takian-potian (4) apurtu izan dira.

ARDATZ-NAUSI, husillo patrón.

Onen tornu ("torno") onen ardatz-nausixak ari ("rosca") biborra ("Withworth") dauka ta ari metrikuak ("métrico") emoteko geixki-be geixki ibiltzen naix.

ARGI-ERAIN, operación de abrillantar en el proceso de pulimento.

Argi-eraitxeko paiñuzko poleia ta pastia biar.

I, mesedez argi-eraixok oneri ebilli-oneri. Baña argi ibilli ari, neria-ok-eta.

ARGI-MUTIL, aparato que consistía en un eje de hierro que se clavaba en el banco de trabajo, con un extensor perpendicular al eje, que llevaba lugar para una vela.

I, argi-mutillari kandela barrixa ipinixok, lena erre dok eta.

Zorixonian (zorionian) etorri zuan argi eletrikua, ze, len emen ibiltzen giñuan iputargixak ("luciérnaga") baño argi gutxiago eitxen eben argi-mutillekin.

---

(1) ARRAGUETA, kale baten izena da Eibar'en, izen ori *arrago* "crisol"-dik datorkigu.

(2) SENETIK-URTEN, desconcertar, alteración del sistema nervioso.

(3) XAXARA, fundamento o cuidado. Se acostumbra a decir con ironía: *Ori dok xaxaria*, como diríamos en castellano: "Qué fundamento".

(4) TAKIAN-POTIAN, a menudo, de cuando en cuando.

ARI, rosca.
Ondo ajuztau barik daon arixa laster ixoko da.
Batian ari inglesa ta bestian metrikuakin beti nastian ibilli barik noiz eldu biar ete gara batasunera.

ARPIKO, cincel, cincel de cantero. (Zarrak bakarrik erabiltzen dute).
Santugiñak asko erabiltzen dabe arpikua.

ARRASPA, lima escofina para el trabajo de madera.
Egurreko biarretan, aundiña arraspiakin ein ondoren, gero limiakin pasatzen da leuntzeko.

ARREME, AR-EME, herramientas que trabajan juntas efectuando la labor de macho y hembra a la vez.
Ba-daoz erremintxa batzuek arremiak diranak. Bixak alkarrekin dabe ar-eme biarra; bata bestian barruan doia.

ARRI, piedra, muela de esmeril.
Arriko biarrak neketsuak, zikiñak eta osasunerako txarrak dira.
Orretxe-aitxik (gaitik) al daben guztiak zirkin (5) eitxetse (egiten diote) biar orri.
Arriko biarra txarra da beti. Gañera bat argi ezpadabil, esmerilla sartze ako (zaio) beixan (begian).

ARTAZI, tijera.
Txapia ebateko artazixak, galtzairu onezko auak biar ditxu.
Artazi onak majo ebaten dabe txapia.

ASMAKERI, invento.
Ik, oin-be burua ba-darabik asmakeriren baten.

ASMATZALLE, inventor.
Izan be, Uleixa'n semiak asmatzalle ona urte-ok.
Burugiña (6) dok a.

ASMAU, inventar.
Arek asmauko eztabenik eztaok.

AU, AO, corte o filo de cualquier herramienta.
Erremintxiak ganoraz jango ba-dau aua zorrotza biar.
Ao zorrozdun erremintxia be eerto jaten dau aixe-zulodun pieziak. Bai ba aixe-zuluak aria ("arenilla") eukitzen dau da txartxarra da biarrerako.

AZELIN, turbina de agua. (Zarrak bakarrik).
Agorrakin, amorraiñak larri da azeliñak geldi.

---

(5) ZIRKIÑ, huir haciéndose el desentendido a cualquier conversación o cosa del que el huidor no tiene interés.
(6) BURUGIÑA, que cansa mucho la cabeza, inteligente.

AZPIJAN, desfalco, conspiración.
Kontablia ("el contable") azpijanian arrapau dabe.
Biargiñak ez daoz konforme-konforme eta uesabari azpijanian diardue.

BARAUTS, broca.
Oingo eran galtzairu txarrak dabiz da barautsak laster mozten (moztutzen) dira. Noiz azalduko ete dira aintxiñako barautsen modukuak.
Uesabak barauts baten billa bialdu dau "Eskola Armerixara", baña ezta pozik juan, me-artu (7) dabela petsau dau ta.

BARAUTS-ETXE, portabrocas.
Barauts-etxiak baintzat, gaur-gaurkoz, Markiña ko "Esperanza" 'k eitxen ditxuanak onenak.

BERAN, cincel muy estrecho que se emplea para labrar ranuras o para trabajar en los interiores de las ranuras.
Ori kanal barru-ori sakon daok eta beranakin artu biaok.

BERUN, plomo.
Dornuari ("tornillo de sobremesa") berunezko auak ipintzen jakoz pieza fiñeri obatzerakuan, onek ez orbantzeko.
Berun barik eltziarren, kendu ezindako akatzak ein jakozak.
Garausartzailleak pe berunakin betetzen ditxue aixe-zuluak.

BIAR, trabajo, operación, menester, obligación.
Ba-dakigu biar batzuek bestiak baño obiak dirana. Baña, munduan danok baketan bizi biar ba-gara, biarra dogu biar-biarrekuena.
Obe euke firin-da-faran (8) ibilli barik biarra zintzo eingo baeu.

BIARGIN, trabajador, obrero, operario.
Eskopetagiñak beti izan ditxuk zintzuak eta biargiñak.
Biargiñak jornal geixao ezkatze etzek uesabari.
Ez al ditxuzue ikusi grabadorien biarrak?; ba, geuza fiñeko biargiñik onenak eurak ditxuzue.

BIARGINTZA, faena.
Gizona bai pozik ibiltzen dala norberan gustoko biargintzan

BIRIBILDU, tornear, cilindrar.
Tornero onak biribildutakuan, lima fiñakin ikutu biarrik eztau izaten fin gelditzeko.

---

(7) ME-ARTU, mirar con indiferencia o menosprecio: mejor dicho, como vulgarmente se dice, tomar por "el pito de un sereno" o coger de "primo".

(8) FIRIN-DA-FARAN, gandulear, andar sin ton ni son.

BIZARRAK-KENDU, desbabar las piezas, generalmente las que proceden de los trabajos de estampación.

Trokelak ganoraz ez zorroztiarren emen gabixak, bizar-kentzen denpora geixago galtzen.

BOIZETA, resorte acodado de armería, pequeño en relación al resorte real.

Eskupetiak baskulan daroian zenbaitx pieza txikiren artian boizetia deitzen jakon bat be eruaten dau.

BURDIÑA, hierro.

Burdiñako biarrak Eibar-en amaika laguni emoten detze bizimodua. Bai, izan be berak dakar gure ondasuna.

Mendi-ibili bat eiñ ondoren, etxeruzkuan, berialaxe artzen dou burdiña usaña Eibar-era urreratzian. Begi-itxuan be igarriko genduke nora goiazen.

BURPIL, rueda. (Zarrak bakarrik erabiltzen dute).

Oingo gaztiak burpillari be "erroberia" deitzen jetzek.

Burpillak a ze egaztadia (9) eruan daben aldaz bera.

DESTERARRI, piedra de amolar casera movida mediante un pedal.

Sinistiak pe kontuak jaukaz aintziñan erremintxa zorrozketa guztiak desterarrixan eitxen zirana.

EBAGI, cortar, tallar.

Epaikixa zuzen da politxo erabilli, bixkor ("rápido") da ondo ebateko.

Engraniak eitxeko, moduluakin ("módulo") fresadorian agiñak ebagi.

EME, hembra, herramientas perforadas que en combinación con otras de forma inversa hacen las veces de hembra.

Trokel arra, emian larregi sartzerik ez-da komeni, alekia eitxeako eta orduan azkar mozten da-ta.

EPAIKI, sierra.

Epaikirik onenak suekuak; bai-ba, bolfran ("Wolfram") eta tustenozko ("Tungsteno") aleaziñuak onduen dominatzen ditxue-ta. I, txotxo, biarrakin pentsaik; barriketan jardutzen ba-dok berriz be apurtukoitxuk barautsak eta epaikixak.

EPAIKI-ETXE, portasierras, arco de sierra.

Epaiki-etxia da bein da betiko erremintxa bat.

Olan dok ala? (orrela duk ala?); ainbeste panpan (10) erabiltzen

(9) EGAZTADA, velocidad.

(10) PANPAN, fanfarronada, afán, exceso de confianza. De ahí viene la derivación *panpana artu*, envalentonarse en demasía, haciendo frente.

dok eure burua besterik ez lakua dalakuan, da, oindiok eztok ikasi epaiki-etxiari epaikixa azartzen?

ERTZ, esquina, arista.
Ertzak biziegi ditxuen erremintxekin eskuetan ebaixak sarri.

ERRE, en el tratamiento térmico de metales, calcinar.
Piezia sutan neukana be aztuta najeuan da erre jatak konturatu orduko, olaxen ditxuk gure biarrak... oin, nai-txa nai ez barrixa ein biar.

EREGI, desajuste.
Biargin txarren biarreri eregixak azkar billatzen jakuez.

ERREMINTXA, herramienta.
Biargin txarran dako erremintxa onik ez.

ERRETEN, acequia de un aprovechamiento de aguas.
Erretena, unaren baten zulatuta izan biar dok urak igesixa jaukak-eta.

ERREUSA, pieza no útil, reusada. Debía venir del tiempo de la Real Armería, cuando los trabajos se entregaban en lo que se llamó ERREGETXIA.
Erreusak txatarretara bota ta bakia; eurekin denporia galdu besterik ez dok eitxen.

ESKU-ARRI, barrita de piedra de esmeril.
Pasaixok pixkat esku-arrixa, ia leuntzen dan.

EZTEN, punzón.
Larregi templautako ezterak denpora gitxiko bizixa.

FIRI-FARA, cabeza de tornillería.
Nok esango leuke, batzuek firi-fara koxkor batekin torlojogintzan bizi-modua ataratzen dabela; ondotxo irabazitxa gañera.

GALBAI, arnero, criba.
Galbaiakin torlojo zeiak apartatzen asi da mutilla.

GALDA, fundición, fábrica donde se funden los metales.
Oindiok oraintxu, xemei (11) barik asi ziran galdak pe aberastu ein ditxuk. Izan be, biarrerako urte onak artu itxuek.

GALDATU, caldear (en el tratamiento térmico).
Sarri galdatutako galtzairuak, ur-ebagixak ugari.

GALDATU, fundir. (Zarrak erabiltzen dute).
"Aurrera'ko" labak amaika burdiña galdatutakuak dira.

GALTZAIRU, acero.
Galtzairua, templautakuan, kristalan lakotxe gogorra gelditzen da.

GARAUSARTZALLE, desporador, el que se dedica a rellenar los poros de las piezas fundidas. (Zarrak bakarrik erabiltzen dute).

(11) XEMEI, XEMEIKO, moneda de cinco céntimos.

Garausartzalliak jornal gitxi irabaste (irabasten) juek.

CARAUSARTZE (12), desporar, rellenar los poros al fundido.

Garausartzia ezta biar gatxa.

GAUZAEZDAKUA, inútil (sinónimo de *erreusa*).

Gauzaezdako piezekin zer galdurik ez dagok eta mutikuari obe juau eurekin juan ofiziua erakusten.

GILTZ, llave. (Lantegiko "llave" edo "llave-inglesa"-ri esaten diote, baña zarrak bakarrik darabilte).

Giltza bai dala benetan biar-biarrekua tallarrian.

Giltza ona bada, soltatze-txu gogorren daozen torlojuakpe.

GORI, recalentado (en el tratamiento térmico).

Ipiñi dozu ala sutan berotzeko? —Bai goritzen diardut.

GORI-GORI, al rojo vivo (en tratamiento térmico).

Piezia su gori-gorixan ez denpora larregixan euki, karbonua ezteixan galdu.

Piezia suberatzeko, lelengo gori-gori ein biarda.

GORITXU, recalentar (en tratamiento térmico).

Trokela goritxuta ba-daok sartu azkar olixotara.

GURIZABAL, corta-fríos, cincel.

Ondo tenplau ta ondo zorroztutako gurizabalak txapa sendo-askuak ebaten ditxuala.

ILLUNDU, pavonar (Eibar'ko zarrak).

Onek armazoiok ezteskuez oinguan ondo illundu.

INDDAR (13), energía eléctrica, fuerza motriz.

Indarreko kableren bat edo eten dala ta erri guztia gelditxu da inddar barik.

Gaur tallarretan egon aldixak izan ditxue inddarran faltaz.

---

(12) Erara datorkidanez, ara bein zer gertatu zan *garausartzalle* batekin Donosti'ko "Caja de Reclutamiento"-an. Eibar'ko soldadua baserriko semea omen zan baña kalean lana egiten zuena: Erderaz etzekien *garausartzalle* orri kapitalak galdetu omen zion bere ogibidea zer zan. Baña, zerbait ulertu arren ezin erantzun izan zuen, eta orduan interprete bat eskatu zuen kintoen artean ta plaentxiatar bat atera omen zan.

Kapitaiak esan zion:

—Ia zer ogibide duan mutil onek.

Baserritarrak zintzo adierazi zion, bañan plaentxiar adar-jotzailleak oneia itzuli zuan:

—*Garau* "tremendo", eta *sartzalle* "metedor". Beraz, mutil onen ogibidea, "metedor de tremendos" da.

(13) Bein, udara legor batean, Eibar eta inguruko errietan indar gabe gelditu ziran eta langillerik geienak jai zerabilten. Eta Maltza'n oztopo egin-da, galdetu dio eibartar batek plaentxiarrai:

—*I, plaentxi, Plaentxian zelan zabize inddarrakin?*

—*Inddarrakin ondo, baña inddarrik barik geixki.* —Erantzun zion.

INDDAR-ETXE, central eléctrica.
Saturixo'ko inddar-etxian azelin barrixa ipiñi dabe. Lena ia ezan gauza ta txatarretara botako eben.

IRAOTU, revenir, segunda operación del temple para mejoramiento del mismo.
Iraotixak onek pieza bixok, bata kolore orixkaria ("amarillento") artu arte ta bestia aoruz lasto-koloria ("color paja") dabela laga. Gero, a beste irugarrena rapidua dok eta gibel-koloria emon biajakok ondo iraotzeko.

IRUTXUR (14), diedro, vértice interno del ángulo, esquina, rincón.
Txatarrak pillatixak aintxe irutxurrian.
Pieza batzueri limiakin irutxurra ondo artzia kostosua dok.

IXO, pasar de rosca, deshacerse la rosca de un tornillo o de la tuerca.
Ainbeste lotu ta soltau baabil laster ixoko dok arixa.

JO-TA-PASA, trabajo de batalla o a batalla.
Onek biar merkiok jo-ta-pasa ein bietxuk (bear dituk).

JUNGURA, yunque.
Edozein tallarretan ezteixala faltau suteixa ta junguria; edozertarako ain biarrekuak diranak.

KAKU, gancho.
Kakutik txintxilixka ezeten dira makiñak pe aldatu biar diranian, soñekuak moduan.

KANTOI, vértice externo del ángulo.
Uleixa lekutako kantoian itxain jeuat.
Ori makiñi-ori karriatzen kontuz ibiltzen ezpazadie kantoi guztiak urratuko tsazuez (deutsazuez).

KANTOI-ERTZ, arista del ángulo.
Gure trokelistiak pe biarrak eztitxu aspaldi ontan ondo akabatzen, kantoi-ertzak pe jo-ta-pasa ein da dakarrez da.

KATE, cadena.
Katia biarrezkua da makiñak karriatzeko.
Makiñia katiakin lotuta jaroiek (zeramatek) lau gizonen artian.

KATEGIN, fabricante u obrero de cadenas.
Autubatzalleak (15) diñuenez, Otxandixo'ko kategiñak biar barik azaltzen dirala ta Eibar'era ei-datoz biar billa.

KATETXO, cadenilla.
Katetxo bat da naikua polea orri eusteko.

---

(14) IRUTXUR, faltar a lo prometido, no jugar en limpio, hacer alguna mala faena, falta en diversos aspectos.
(15) AUTUBATZALLE, chismoso (a).

KATIAU, KATIGAU, ocupar.
Makiñia beste biar baterako katiau juek.

KATIAU, KATIGAU, enlazar (aunque mayormente se emplee como "ocupar").
Pieza bata bestiakin katiau biarra izangok, alkarrekin katiatzekuak ditxuk-eta.

KERTEN (16), mango.
Malluka kertenak, egurrezkuak.

KLAK, KRAK (onomatopéyico), ruido de rotura, que por extensión se aplica al quebranto de diversas cosas; al igual que "porrot", muy extendido en nuestra lengua.
An, klak eiok orrek, berriz apurtu eteok-pa? Eerto (ederki) gaozak.
Zuen soziedade ortan-be kapaz dan bururik sartzen ezpozue laster krak eingo-ok.

KLAKADA (onomatopéyico), derivación de "klak".
Iñi!, orrek besu-orrek atara-ok klakadia.

KOIPEZTU, engrasar.
Ondo koipeztu bako makiñiak, takian-potian negarra (17).

KOXKOR, saliente, bulto.
Batzuetan sopletiakin ebaten diaz plakak eta ertzak koxkortsuak gelditzen akuez.

KULIANDA, culata de nogal para escopetas.
Intxeur baltzezko kuliandak eskupeta fiñendako gordetzen dira, goorrauak eta dotoriauak diralako.

LABA, horno.
Pirometruakin ikusik labia zenbat gradurañok berotu dan.

LABARI, hornero.
Zenbat izardi ta bero galda artu biar izaten daben labarixak.
Orretxek ekartzen jetsek goixao zartzia.
Laba onduan bai bero; eran be bai gero.

LATZ, áspero.
Iño!, latza daok au. Pasaixok liz-papela.

LAUTU, allanar.
Au piezi-au zepilluan lautu dozue ala?

---

(16) KERTEN, mango; "bruto" bezela ere erabiltzen dugu Eibar'en. Beste erri batzuetan ere oartu dut.

(17) NEGARRA, además de lloro, sirve de forma castiza para expresar: lamento.

LEUNDU (Legundu), afinar, pulir.

Leuntasun gitxi akek onek piezok.

Eztauaz orrek ain geixki; ik utsa aitxik (gaitik) illetia (18) joten dok.

LIMA-AUTS, limadura.

Puntarengo limarixa ("limador de primero o buen limador") izan nai bok (nai ba dek) eu tapatzeko aña auts atara biako (bearko) dok limiakin. Limia dok gauza bat eiñak bakarrik erakusten dabena.

LIZ-PAPEL, papel de lija.

Baña ori dok xaxaria-ori; oindiok ori piezi-ori liz-papelakin eztok leundu barren (19).

LOKA, punto muerto en el mecanismo de las máquinas.

Baña, makiñia garbitzen lokan ipiñi barik abil barren. Makiñia garbitzen azterakuan, lelengo lokan ipiñi biaok, miñen bat artu ezteixan. Ikasik neu bizi naixen artian.

LOTU, armar, montar. Antes solamente se usaba en armería, pero actualmente se halla extendida a la mecánica en general.

Sasoi bateko makiñak lotzia ezuan beste munduko gauzia, baña oin azaltzen diran makiña barrixak lotzeko bertara jarritxa dagon tenikua biar.

LURRUN, vapor.

Tenpleko lurrunak beneno utsezkuak ditxuk.

Asido-sulkuriko orren lurrunakin kontuz ibilli akitx ("ándate con cuidado"), laster enbenenatzeok eta.

MAILLUKA, MALLUKA, martillo.

An tallarrian euan malluka otsa.

Ekarri dok ala maillukia.

MALLU, mazo, maza.

"Tiriki-tauki-tauki
mailluaren otsa,
bixar ezkontzen dala
gure neska motza..."

---

(18) ILLETA, lamentación, queja sin suficientes motivos. (Itz au Eibar'en "funeral" bezela ez da ezagutzen, era oietan baizik: *Illetia besterik ez-tarabil* "no tiene más que lamento". Edo: *Illetia-joten dau baña ezda ori ain geixki bizi* "se lamenta, pero ése no vive tan mal'.

